

# Bakea eta Elkarbizitza Plangintzari

---

buruz lehen  
urtean egindako  
ebaluazioa



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



## Aurkezpena

Juan José Ibarretxe lehendakariak 2005eko ekainaren 22an bakearen eta adiskidetzearen aldeko Plan integrala egin eta onartzeko konpromisoa iragarri zuen, Jaurlaritzak giza eskubideen eta bakearen arloan bete behar zituen zeregin guztiak ondo jasota gera zitezten plan horretan. Zubi politikoak hautsita zeuden eta nahasmena zen nagusi une hartan; Giza Eskubideak sarri urratuta eta indarkeriaren gurgila biraka; beharrezkoa zen politika-lan eragingarriagoa, egituratuagoa. Arlo honetan jarduteko plana aurkeztu zen lehen aldiz 2006ko apirilaren 26an, eta bertan 60 ekimen baino gehiago jaso ziren zehatz-mehatz. Zorionez, orduko gizarte- eta politika-giroak aurrera joateko bultzada ederra eman nahi izan zion ekimen honi. ETAk su-eten iraunkorra iragarri berri zuen, eta gizartean ilusioa sortu zen, proposatutako erronkei soseguz erantzuteko moduan.

Lan-plana Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen 2006ko maiatzaren 2an, eta, horren ondoren, Eusko Legebiltzarrari igorri zion. Berehalaxe, plana martxan jarri behar zuten sailburuek Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu zituzten beren asmoak elkarrekin. Ekarpenak egiteko epea ere ireki zen, 2006ko irailaren 30era arte; aho batez onartu zuten ekarpenak idatziz ez egitea, era horretako gaietan hobe delako, jendaurreko eztabaida eta tirabira publikoak areagotu beharrean, adostasun-puntuak ahalik eta gehien bultzatzea.

Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrean gaia eztabaidatzen ari ziren bitartean, Planari buruzko kanpo-azterketa bat egitea eskatu zion 2006ko irailean nazioarteko aditu talde ospetsu bati, eta esan behar da oso modu onean balioetsi zuela talde horrek ekimena. Nazioarteko mintegitik etorri ziren ekarpenak sartu ondoren, Giza Eskubideen Batzordean proposamenak aurkezteko epea ere bukatu zen; 2006ko urriaren 1ean hasi zen, beraz, aurrez pentsatutako ekimenak hezur-mamitzen hasteko garaia. Harrezkero, ekimen honek zabalik izan ditu beti ateak, eta komunikazio-zubiak irekita egon dira etenik gabe, bai gizartean diren erakundeentzat, bai gai horretan interesa duten nazioarteko erakundeentzat ere.

2007ko irailaren 17an, bakea eta bizikidetzak ekartzeko planari lotutako jardunak hasi izanaren lehen urteurrena baino bi aste lehenago, egin zen urteko lehen ebaluazio-mintegirako deialdia, Jaurlaritzak horretarako konpromisoa hartua baitzuen Eusko Legebiltzarrekin. Planaren izaera integratzailea denez, ebaluazio-prozedura horrek nazioarteko adituen iritzia bildu zituen, baita jardun-alar horretan espezializaturiko euskal gizarte-erakunde nagusien iritzia ere.

Ebaluazio horretarako lehen zirriborroa aztertu eta Lehendakari izandako lan-mintegian eztabaidatu ondoren, zenbait aldaketa sartu zizkieten, jasotako ekarpenetan oinarrituta. Horrenbestez, azterketako, diseinu estrategikoko, ezarpeneko eta ebaluazio parte-hartzaileko prozesu luze baten ondorio da dokumentu hau.

Eginiko lanaren jarraipena errazte aldera, ebaluazio honek 6 atal ditu, hain zuzen ere, bakea eta bizikidetzak ekartzeko plana osatzen duten ardatzetako bakoitzeko bana: (I) Giza eskubide guztiak defendatzea eta sustatzea, (II) Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea, (III) Oroimen historikoa berreskuratzea, (IV) Askatasun nahiz eskubide zibil eta politikoen alde lan egitea, (V) Torturari aurrea hartzea, eta (VI) Bakeari begira hezteak. Ardatz horietako bakoitzean ekimen-kopuru handia planteatu zen, jardun horien bitartez sufrimendua aitortu eta leuntzeko, eta etorkizunean giza eskubiderik berriz ez urratzeko. Zenbaitetan, jardun horien bitartez, arazoaren iturri den hori konpondu nahi genuen zuzenean; beste batzuetan, berriz, nahiago genuen hezkuntzan edo gizartearen sensibilizazioan lan egin, edo bakearen kultura eta giza eskubideen aldeko errespetua zabaldu; edo balio zibikoak eta tolerantzia sustatu. Jarduera-ardatz horien inguruan bultzatutako ekimen guztiak aztertu eta balioetsi dira zehatz-mehatz; ebaluazioarekin batera doazen laukietan ere ondo jasota daude horiek denak.



Egindako lana handia izan da eta era askotakoa; gainera, epe luzerako diren proiektuak balioesteko orduan ebaluazio orokorrak egitea oso langintza zaila da; hala ere, txosten honetan ebaluazio sintetiko eta dinamikoa erabiltzea erabaki da. Jarduera-ardatzetako bakoitzak bere ebaluazio orokorra du, eta, horrez gain, ekimen guztiak lauki batean daude bilduta, proiektua orokorrean zenbateraino bete den ikusi ahal izateko erraz eta garbi. Dokumentazio horren osagarri, CD bat ere dator erantsita, ekimen esanguratsueni lotutako jatorrizko agiriak erakusteko. Edozein kasutan ere, ebaluazio-prozesu hori zehatz-mehatz ezagutu nahi duten instituzio eta erakundeek egoki irizitako informazio lagungarri guztia eska diezaioke Jaurlaritzari.

## Aurkibidea

Bakea eta Elkarbizitzarako Ekimenaren oinarriak . . . . .	7
1. ardatza. Giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko jarduerak. . . . .	9
1. ardatzari buruzko ebaluazioa. Giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko jarduerak . . . . .	12
2. ardatza. Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea. . . . .	17
2. ardatzari buruzko ebaluazioa. Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea . . . . .	20
3. ardatza. Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea. . . . .	23
3. ardatzari buruzko ebaluazioa. Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea. . . . .	26
4. ardatza. Askatasunen Defentsa eta Eskubide Zibilak eta Politikoak Berreskuratzea . . . . .	29
4. ardatzari buruzko ebaluazioa. Askatasunak defenditzea eta eskubide zibil eta politikoak berreskuratzea. . . .	32
5. ardatza. Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen giza eskubideak defendatzea. . .	37
5. ardatzari buruzko ebaluazioa. Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen giza eskubideak defendatzea . . . . .	40
6. ardatza. Bakeari eta bizikidetzari begira heztea . . . . .	43
6. ardatzari buruzko ebaluazioa. Bakeari eta bizikidetzari begira heztea . . . . .	46



## Bakea eta Elkarbizitzarako Ekimenaren oinarriak

- **Filosofia bat**

Bakea behin betiko lortzea ez dago Gobernu baten lanaren esku; edo ez horren esku bakarrik, beste aktore askok ere eragina baitute horretan. Gobernu batek ezin du berak bakarrik bere kabuz bakea ekarri; baina, bai, bakea sendotzeko baldintza egokiak sortaraz ditzake eta elkarrekin egokiro bizitzeko ekimenak susta ditzake. Hauxe zen gure filosofia, plan honen abiaburu: "Bakea guregana ekartzen eta gure arteko bizikidetzaren errotik hobetzen laguntzea, elkarrekin adiskidetzeko ibilbide horren aldeko egoerak eta baldintzak sortarazita".

- **Helburu nagusiak**

Helburu nagusiak proiektu honen barruan programatutako jardun guzti-guztietan agertzen dira zeharka, hiru helburu hauek baitira gainerako guztien lokarri eta bilgune:

- Bat - Pertsona guzti-guztien bizitza eta giza eskubideak errespetatzea.
- Bi - Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei egindako kalte guztiak aitortzea, oroitzea eta dagokien ordaina ematea.
- Hiru - Politika aktiboak eta ekimen konkretoak garatzea, Bakegintzan hezi gaituzten, eskubideak eta askatasunak urratzeari aurrea hartu diezaiogun, eta aurrerantzean inoiz berriz horrelakorik gerta ez dadin.

- **Gobernuaren programa, abiaburu:**

Lehendakariak, 2005eko ekainaren 22an, inbestidura-saioan egindako hitzaldian gobernu-programa aurkeztu zuenean, bere konpromisoa iragarri zuen, alegia, «bakearen eta adiskidetzaren aldeko Plan integrala egin eta onartuko zuela, plan horretan, Jaurlaritzak giza eskubideen arloan bete beharko dituen zeregin guztiak aintzat hartuta eta jasota». Konpromiso horri erantzuteko bidean egindako lehenbiziko aurrerapausoa zen ekimen hau.

- **Gizartearen eskaria, erreferentzia nagusia**

Gure gizartearen ustetan, terrorismoaren indarkeria anakronismoa da, eta ez da bateragarria gure garaiotako gizon-emakumeek duten konpromiso etikoarekin ezta bizitzan dituzten lehentasunekin ere. Eta horixe da, hain zuzen ere, proiektu honen iparra: aldarrikapen horri modu egokian erantzutea eta euskal gizartearen nahiak egokiro betetzea, giza eskubideak urratu dituen aro hau erabat eta betiko gainditu eta elkarren arteko bizikidetzaren hobetu dezagun. Gobernu honek bere gain hartu duen konpromisoa zehatz-mehatz eta ebaluatzeko moduan agertu nahi genuen, gizarteak eskatzen baitigu eragile eta eraginkor izan gaituzten bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko lanean.

- **Giza eskubideak, elkarrekin egokiro bizitzeko oinarri**

Ekidistantzia faltsu horiek alde batera utzita, hemen baliozkoa den erreferentzia-puntu bakarra dago bizikidetzaren lortzeko lanean: giza eskubide guzti-guztiak errespetatu behar dira, inolako bazterkeriarik gabe; horixe da guztiok izan beharreko ipar-orratza. Giza eskubideak defendatzea eta errespetatzea; horixe da gure arteko bizikidetzaren eta elkarrekiko bizimodua antolatzearen bizkarrezurra; horixe da gizarte zuzena, bidezkoa eta solidarioa bermatzeko bidea.

- **Bizitzeko eskubideak du funtsezko lehentasuna**

Gobernuak nahi zuen proiektu hau lagungarri izatea guztiok aitortu eta ikus dezagun giza eskubideak urratu izanak eta indarkeriak zer-nolako sufrimendua ekarri duten. Horretarako, zenbaitetan erraza ez izan arren, batetik, barru-barrutik aitortu behar dugu pertsona askok sufritu dutela alferrik; dudarik gabe, lehentasunik behinena bizitzeko eskubidea defendatzea da, hori kenduta gainerako eskubideek ez baitute zentzurik; eta, bestetik, indarkeriaren mehatxua eta eskubideen eta askatasunen urraketa zuzenean jasan duten pertsonen lagundu behar diegu.

- **Biktimizez oroitzea; aurrera egin ahal izateko ezinbesteko bidea**

Bizikidetzaren, elkarrekin bizitzeko modua hobetu nahi duen gizarteak giro egokia behar du, bakea, askatasuna, justizia eta giza eskubideen errespetua oinarri direla. Baina, horrez gainera, hobekuntza hori benetan sendoa izan dadin, eta iraganeko akatsak berriz gerta ez daitezen, biktimganako oroimena izan behar da beti argi buruan. Ez dugu etorkizuna ahanzturaren gainean eraiki nahi; biktimen aldeko oroimena eta duintasuna zaindu nahi ditugu, beren sufrimenduaren omenez, etorkizunerako ikasbide, zauriak berriz ireki ez daitezen eta elkarrekin gero eta hobeto bizitzen ikas dezagun.

- **Biktimen oinazea aitortzea, elkar ulertzeko bidea**

Gizakiaren errukia kanporatzeko oinarriko jarduna da, politikatik at, inoren sufrimendua aitortzea, min hori norberarengan sentitzea. Bakoitzak hurbilen duenaren mina sentitzen du barnerago; bakoitzak kide duenaren samina jasaten du mingarriago; hori ulergarria da. Baina bakegintzan denok egin behar dugu ahalegina, batez ere, Gobernuan eta politikagintzan dihardugunok, ez sentimendu hori aldarazten, baizik eta gure gizarte osatzen duten giza sufrimendu anitz horiek aitortzen eta gureganatzen, oinaze horiek arindu, leundu eta konpon ditzagun, ahal dugun neurrian behintzat.

- **Era askotako sufrimenduak daude; egiaztapen objektiboa**

Proiektu honetan behin baino gehiagotan nabarmendu dugu «guztiak» hitza: sufrimendu guztiak, biktima guztiak, zauri guztiak... Erabat jakitun gaude eta ondotxo dakigu oso-oso gai delikatuaz ari garela. Gure gizartean zauri asko daude sendatu gabe, oraindik zabalik. Hori horrela dela onartu gabe ezin izango genioke ekimen honi behar bezala eta modu egokian heldu.

- **Proiektu irekia eta dinamikoa**

Behin helburuak zehaztuta, Gobernuak ez zuen dokumentu itxia planteatu nahi, hasieratik bere horretan finkatuta egonez gero, agortuta egongo bailitzateke sorburutik. Azken batean, lan-tresna lagungarria eskaini nahi zen, giza eskubideak defendatzeko arloan Gobernuaren sail guztietan berdintsu jokatzeko eta batera lan egiteko ildoak eta ardatzak argi egon zitezen.

Bagenekien jakin, bai, zailtasun eta eragozpen ugari izango genituela, proiektu honetan sufrimenduak denak batera aztertu nahi zirelako, hau da, indarkeria erabilia eta banakako nahiz taldekako giza eskubideak urratuta gure gizartean bidegabe eta modu izugarrian eragin ziren sufrimendu guztiak osotasunean aztertu nahi zirelako. Guztiok egin behar genuen ahalegina, eskuzabal eta enpatiaz joka dezagun.

Guk, arduradun politikook ere, milaka eta milaka herritar ezezagunek beren eguneroko bizimoduan erakusten diguten ereduari jarraitu beharko genioke, bakoitzaren ezberdintasunak onartuta eta errespetatuta, guztiak elkarrekin egokiro bizitzeko gai baitira.

## **1. ardatza.**

**Giza eskubideak defendatzeko  
eta sustatzeko jarduerak.**



## 1. ardatza. Giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko jarduerak.

Giza eskubideek beren formulazioan bilduta dituzte balorazioetan eta arauetan izan beharreko adostasunak, horietan izan behar dutelako, gizakiaren duintasunean oinarrituta, gizartearen eta bere Erakundearen ardatz eta arau. Adostasun horiek nazioen artekoak dira, estatus gaindikoak, unibertsalak izan nahi dutelako, eta, hizkuntza berri batez, justiziaren eta elkartasunaren betiko idealez hornitzen gaituztelako. 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 1. artikulua adierazten duenez “gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu behar dute”.

Giza duintasuna da, beraz, muin eta egiazko giltzarri; giza duintasunak babestuta egon behar du beti, egoera edozein dela ere, eta ez du inoiz bazterkeriarik onartu behar, arraza, kolore eta jatorri etniko edo nazionalarengandik zein, hizkuntza, erlijio, ideologia edo sinismen, sexu, sexu-orientazio, osasun-egoera, gizarte-jatorri edo beste edozergatik.

Oraindik amaitu ez den prozesu historiko luzean finkatuz joan diren eta, gizaki bakoitzaren garapen pertsonal, sozial eta kolektiboa ziurtatzera zuzendutako tresnak izateari uko egin ez dioten eskubide-taldearen aitormena dakar berarekin, zuzen-zuzenean, giza duintasunarekiko begirune horrek. Horrexegatik, honako xedea izan behar du giza eskubideen interpretazioak azken batez: nortasun, talde bateko kide izate eta kultur zaletasun ezberdinak itoko ez dituen –bateratu eta suspertu, baizik- elkartasunean eta berdintasunean oinarritutakoa ikuspegi ireki bati jarraiki, gizakien erabateko garapena ahalbidetu eta sustatzea.

### Giza Eskubideen Kultura

Testuinguru honetan, gizaki guztien eskubide oro sustatzearen aldeko apustua eginez gero, esaten ari gara giza eskubideen kultura onartu, eta bere egiten duen talde-subjektu bat gizartearen eta erakundearen osatu nahi dugula berresten ari garela. Gizarte- eta politika-arloan antolaketa-eredu jakin batean oinarritzen gara, gure ardatz, giltzarri eta jarraibide baitira bai Nazioarteko tresnarik unibertsal eta garrantzitsuenak –1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala; 1966ko Eskubide zibil eta politiko eta ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko nazioarteko hitzarmenak- bai 1950eko Giza Eskubideen Europako Hitzarmena ere. Izan ere, Europako Hitzarmen horrek Europarako egiazko Konstituzio bat dakarkigu, eta horra garamatza; eta ukalezko eskubideak eraginkortasunez aitortu eta bermatzeko estandarrak erantzen ditu, bai Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren bidetara jarraiki, bai 1978ko Espainiako Konstituzioaren 10.2. artikulua bitartez.

Dena den, eskubide-multzoz zatietan bat ordezkatzeko du ondare horrek, horietan behinena bizitzarekiko begirunea izanik, eskubide hori onartu eta babestu gabe, ezin baitira besteak gauzatu. Beraz, hasiera-hasieratik bizitza eta askatasun zibil eta politikoak errespetatzearekin, bizi-proiektuaren lehen urratsa ematen ari da, hori gabe ezin baita garapen pertsonalik bideratzen hasi. Horrexegatik, balioen hierarkian garrantzien maila gorena hartzen du horrek edo, nahiago izatekotan, lehen oinarriarena, horrela ezean, bizitzeko giza baldintza duinek ez dutelako lekurik. Bizimodu hori erabat garatu ahal izateko, haatik, ekonomia- eta gizarte-baldintza jakin batzuk behar dira –bigarren mailako eskubideak-, baita elkartasun-bokazioa ere, ezinezkoa delako egiazko justizia batera iristea, baldin eta erabateko justizia lortzen ez bada, edo munduaren antolaketan elkarrengandik eta elkarrekiko erantzukizuna kontuan hartzen ez bada. Ondorioz, nazioarteko esparruan, banakako eta taldeko ikuspegiari ere erreparatu behar dio pertsonaren eta bere duintasunaren garapenak, alegia.

Guztionez giza eskubide oro sustatzeko eta defendatzeko, denok horiei atxiki eta horien alde lan egiteko konpromisoa hartu behar du, aitzakiarik edo baldintzapeko atxikimendu partzialik gabe. Gaurko egunean, eskubide horiek geureganatu edo sustatzeko, halaberrez defendatu edo bultzatu behar ditugu. Nolanahi ere,

babes horrek ezin izango du inoiz indarkeriaren adierazpide izan, eta, gatazkak konpontzeko, betiere, bide baketsu eta demokratikoak erabiltzera bideratuko gaitu.

### Jarduteko printzipio politikoak.

- Pertsona guzti-guztien bizitzarekiko eta giza eskubideekiko begirunea aldarrikatzen dugu, salbuespenik gabe.
- Indarkeriako eta banakako zein taldeko giza eskubideen aurkako ekintza eta adierazpen guztiak gaitzesten ditugu.
- Gatazkak ebazteko bide baketsu eta demokratikoak baino ez erabiltzearen aldeko apustua berretsi nahi dugu.

## 1. ardatzari buruzko ebaluazioa. Giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko jarduerak.

Giza Eskubideak defendatzeko eta sustatzeko ekimenak dira, zalantzarik gabe, Bakea eta Bizikidetzaren Ekartzeko Planaren bizkarrezurra. Ardatz honetan, baina, zeharkakoak diren neurriak landu nahi izan dira batez ere, eta betiere, giza eskubideen kultura instituzioetan txertatu eta egituraren sustatu nahian. Ardatz honek helburu orokorragoak ditu, arloz arlo egin beharreko lana beste ardatz batzuetarako utzita. Izaera orokor eta integratzaile horrek sortzen du, beraz, ezinbesteko euskarria, Planaren gainerako ekimen guztiek oinarri orokor sendo baten inguruan garatzeko modua izan dezaten. Giza Eskubideak elkarren artean harremanean daude denak, unibertsalak dira eta bata besteari lotuta daude; orain aztertzen ari garen honelako jardueraren plan batek, beraz, ekimen estrategikoen multzoa izan behar du, ondoren, horien gainean gai zehatzei buruzko programa bereziak garatu ahal izateko. Ekimen horien helburu zen egitura iraunkorrak sortzea (sare lokalak, behatokia), etxeko lanaren internalizazioa lortzea (Giza Eskubideen Goi Komisarioarekin hitzarmenak sinatzea, Europako gatazken sareari laguntza ematea) eta gizartean zabalkunde eta sentsibilizazioerako erabili ohi diren betiko neurri eta programak bultzatzea (Kongresuak, mintegiak, kanpainak, diru-laguntzen programak, nazioarteko egunak...).

### Epe Luzerako Ekimenak

Aipatutako azken jardun-multzo horri dagokionez, esan behar da ekimen gehienak epe luzean egitekoak direla, eta Eusko Jaurlaritzak azken legegintzaldietan garatu izan dituela modu egonkor, zikliko eta iraunkorren. Aipagarriak dira arlo horretan, bai giza eskubideen alde diharduten erakundeei laguntza emateko urtero egiten den deialdia, bai Renné Cassin saria, bai eta, ildo beretik joanda, Giza Eskubideen 1948ko Adierazpen Unibertsalaren urteurrena dela-eta, urtero egiten diren sentsibilizazio-kanpainak ere.

Azken urte honetan bertan, adibidez, gizarte-erakundeek bake-kulturaren eta giza eskubideen alde parte hartzeko programak sustatzeko (udaletako proiektuak ere barnean hartuta) eman diren diru-laguntzen aurrekontua milioi bat eurokoa izan da. Era horretara, zuzenean laguntza eman nahi izan diegu gure gizartean helburu horien alde lanean ari diren erakundeei, asko eta asko dira-eta, eta, betiere, ekimen horietan agertzen den aniztasun soziala errespetatuta. Nolanahi den ere, argi eta garbi esan behar da ekimen horietara bildutako proiektu-kopurua eta

programa horiei izendatutako aurrekontu-zenbatekoa bikoiztu egin direla azken urteotan. Hobetu beharrekoak ere badira oraindik; esaterako, deialdiak kudeatzeko administrazio-lanetan eta ebaluazio-sistemetan badago zer hobetu, eta komenigarria izango litzateke hori egokiro moldatzea, programa hauetan parte hartzen duten erakundeen iritziak oinarri hartuta.

Sustapen-neurri klasiko horien multzoa biribiltzeko, aurrekoek gainera, beste ekimen batzuk ere garatuko dira 2008 eta 2009 urteetan. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela-eta, Nazioarteko Biltzarra egingo da, eta, horri lotuta, giza eskubideen, segurtasunaren eta askatasunaren arloan hausnartzeko topagunea ere antolatuko da. Azken urteotan dagoeneko nazioarteko bi kongresu garrantzitsu egin dira Giza Eskubideei buruz gure herrian, Justizia Sailak antolatuta. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena abagune ederra izango da, hausnarketarako eta analisisirako hitzordu hori erabat sendotzeko 2008an. Azkenik, martxoaren 21a hartu nahi dugu arraza-diskriminazioa eta bazterkeria ezabatzeko nazioarteko eguntzat, eta hori nahi dugu martxan jarri.

### Giza Eskubideen Eragileak

Egitura egonkorak sortu nahi dituzten ekimenak ere badira, eta, horiei dagokienez, zenbait neurri berritzaile eta eragingarri dira, esaterako, tokian-tokian giza eskubideen aldeko agenteen sarea sortzeko lana. Ebaluazio honen bidez ondo ziurtatuta geratuko da, udalei dagokienez, Giza Eskubideen arloan proiektu integralak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko 7 proiektu jarri direla martxan, beste proiektu batzuen aitzindari izan daitezten. Orain arte, beraz, Agurain, Amurrio, Durango, Erandio, Etxebarri, Ortuella eta Zarautz izan dira proiektu-gune, eta, aurreikusitakoaren arabera, datorren urtean, 2008an, beste udal batzuk hasiko dira (12, 2008an; 20, 2009an). Hasieran behintzat, ekimen honetan indar handiagoa emango zaio bakearen aldeko heziketari, baina, ondoren, epe ertainean, giza eskubideei lotutako alde eta ikuspegi guztiak landuko ditu pixkanaka-pixkanaka. Arlo honi dagokionez, udaletan egindako beste esperientzia batzuk ere badira, sareak sortzeko eta finkatzeko filosofia horri utsita (parte hartzeko foroak –“konpondu”–, adiskidetzeko eragile-sareak –“bider milla”–); horiek aurrekoen osagarri dira, eta geroago azalduko ditugu, bakoitzari dagokion ardatzean.

Oraindik goiz da lehendabiziko emaitzak analizatzeko, baina, adierazleei begiratuta behintzat, oso itxaropentsu gaude. Jardunbide egokiak erakusteko ereduak joan behar dira finkatzen, gero eredu horiek zabaltzeko. Aurrerapausoak txikiak dira, baina ziurrak. Programa horiek lurralde osora zabaltzea lortzen badugu, euskal herritarrok lan-sistema jakina izango dugu, udaleko gizartean ondo errotua, eta horrek asko lagunduko digu Giza Eskubideen inguruko kulturari lotuta dauden helburuak iristeko. Guztiok aitortu eta eskertu behar dizkiegu udalei arlo honetan egiten ari diren lana eta ahalegina. Seguru aski, duela urte batzuk, ezinezkoa izango zen udaletan horrelako proiektuak aurrera eramateko beharrezkoa den denbora eta beharrezko diren baliabideak erabiltzea.

### Nazioartea

Ikusi dugu zein diren sustapenerako ekimen klasikoak eta sareak sortzeko lanak, eta orain aipatu behar dugu Euskadin giza eskubideen alde egindako lanaren berri nazioartera eramateko ahalegina. Goi Komisarioarekin hitzarmena sinatu nahi dugu, horrek asko lagunduko bailiguke hemen aipatutako programen eta bestelako ekimenen kalitatea hobetzen. Era berean, euskal profesionalak goreneko mailan prestatzeko aukera emango liguke. Une honetan, Genevarekin lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko zirriborroa behin-betikoa da ia, eta, seguru aski, sinatzeko prest egongo da 2008. urtearen hasierarako. Horrez gainera, helburu bera lortu nahian, urtebete daramagu lanean UNESCOrekin eta Europako Kontseiluarekin. Era berean, bitariko Hitzarmena ere oso aurreratuta dago; horren barruan, Goi Komisarioarekin sinatu beharreko akordioaren kasuan bezala, prestakuntza-programez gain, erakundeen arteko informazio-trukaketa sistematikoak eta gure programen gaineko aholkularitza eta ebaluazioa daude; gainera, Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru bat emango du, giza eskubideen gaineko lanak elkartasuna eta erantzun solidarioa eskatzen baititu beste gizarteekiko; gureak baino askoz ere arazo larriagoak dituzten gizarteak egonda, mundu

globalizatu honetan, arazo horiek gure arazo ere badira. Parisekin egin nahi dugun hitzarmena sinatzeko prest egongo da, urte bukaerarako gutxi gorabehera, eta Europako Kontseiluarekin egin nahi duguna, 2008an.

Nazioartean gure egoeraren berri zabaltzeko ildo horretan, gatazkei aurre hartzeko europar sarearen aldeko lana ere hasi da martxan azken urteotan, gure inguruan gertatu diren aldaketa politiko eta sozialak direla-eta sortu diren beharrian berriei erantzun nahian. Orain arte, sare horrek zenbait bilera egin ditu gure lurraldean, eta Justizia Sailak ere parte hartu du egindako azken konferentzia globalean, erakunde horrek berak antolatu baitzuen konferentzia hori Nazio Batuen egoitzan. Etorbizunari begira, sare horrekin harremanetan egonda, Eusko Jaurlaritzak eta nahi duten gizarte-erakunde guztiek zuzeneko bidea izango dute arlo horretan European “lobby” nagusi denarekin hitz egiteko.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak lanean jarraitzen du Giza Eskubideen Nazioarteko Behatokiari buruzko proiektu berria aurkeztu nahian, gaur eguneko beharrianak aintzat hartuta eta beharrezko den adostasuna lortuta, erakunde horrek ahalik eta funtzionamendurik onena izan dezan.

Laburrean esanda, lehendabiziko ardatz honetan zeuden 10 ekimenetatik, 6 garatu dira edo garatzen ari dira; beste hiruk abian jartzeko eguna jarria dute; eta ekimen bat bakarra geratu da bat ere landu gabe.

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Udalaren arloan gizartea sensibilizatzeko programak bultzatzea.	Gauzatze-bidean	Ekimen hau behar bezala eta era egokian bete dela esan liteke, udalei aholkuak emateko programa bat jarri delako martxan, proiektu integralak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko. Erreferentzia modura, 7 proiektu pilotu egin ziren 2007. urtean.	Aurreikusitakoaren arabera, 2008an 12 udal izango dira, eta 20 izango dira 2009. urtean. Aurrekontua: 312.000 €
Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. Urteurrena dela-eta, Nazioarteko Biltzar bat burutzea.	Gauzatze-bidean	Giza Eskubideen Zuzendaritzak aurrez egin beharreko prestakuntza-lan guztiak egin ditu Nazioarteko Biltzarra 2008ko ekainean egin dadin.	Aurrekontua: 300.000 €
Giza eskubideen, segurtasunaren eta askatasunaren arloan hausnartzeko nazioarteko topagunea antolatzea.	Prestatze-lanetan	Gazteria Sailak, Salto Resource Centre erakundearekin batera, nazioarteko mintegi baterako deialdia egin du, honako helburu honekin: gutxiengoaren taldeen egoerari buruzko jakintza zabaltzea eta hobetzea, Europako egungo testuinguruan. Giza Eskubideen Zuzendaritzak, halaber, gai horri buruzko nazioarteko foroa programatua du; foro hori 2008ko otsailean egingo da.	Aurrekontua, Gazteria: 25.000 €
Urtero René Cassin saria antolatzea.	Gauzatze-bidean	Sari hau “Maiatzeko enparantzako amonak” izeneko erakunde argentinarrak jaso zuen 2006an. Erakundearen izenean, Estela Barnés de Carlotak presidentea eta Tosa Tarlowsy presidenteordeak jaso zuten saria.	Aurrekontua: 15.000 €

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkin gehigarriak eta aurrekontua
NBEko Goi Komisarioarekin, UNESCOrekin eta Europako Kontseiluarekin lankidetzeta-hitzarmenak izatea.	Gauzatze-bidean	<p>Sari hau "Maiatzeko enparantzako amonak" izeneko erakunde argentinarrak jaso zuen 2006an. Erakundearen izenean, Estela Barnés de Carolotak presidentea eta Tosa Tarlowsy presidenteordea jaso zuten saria.</p> <p>2007. urtean, honako hauei eman zaie saria ex aequo: "Francisco y Catalina" itsasontziko tripulazioari, itsasoan etorkinak salbatzeko egin zuen ekintzagatik, eta Aranzadi Zientzi Elkarteari, memoria historikoa berreskuratzeko egindako lanagatik.</p>	Aurrekontua: 225.000 €
Urtero, Giza Eskubideen Adierazpenari buruzko sentikortze-kanpaina garatzea.	Gauzatze-bidean	<p>Kanpaina hori 2006. urteko abenduan egin zen, lema honako hau zelarik: "Eskubide guztiak. Pertsona guztiak. Todos los derechos. Todas las personas ...."</p> <p>2007. urtean, kanpainak honako goiburu hau izan du: "Zeuk duzu hitza".</p>	
Kulturen arteko gizarte baten baitan, berdintasun- eta errespetu-balioak sustatzea.	Gauzatze-bidean	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inmigrazio Zuzendaritzak laguntza-ildo bat finkatu du kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka sustatzeko. Deialdi horren helburua honako hau da: kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako jarduna bultzatzera zuzendutako proiektuentzako laguntzak ematea, hau da, EAEn elkarrekin bizi diren hainbat jatorritako kulturen eta lagunen berdintasunezko harremanak, elkar ezagutzea eta elkartrukea sustatzea helburu duten programentzako laguntzak ematea.</li> <li>- EAEn bizi diren etorkinen kulturak hedatzeko Begi Berri urteko programaren garapena. Programa horren bitartez, honako hau lortu nahi da: gizarte berean hainbat kulturaren bizikidetzak sortzen duen kultur aberastasunari buruzko informazioa ematea eta euskal biztanleria kulturartekotasunaren balioei buruz sentsibilizatzea.</li> </ul> <p>Giza Eskubideen Zuzendaritzak proiektu ugari sustatu zuen helburu hori betetzearren, arlo honetan lanean diharduten erakundeei urtero diru-laguntzak emateko deialdiari esker.</p> <p>Proiektuetan, besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: CEAR (Euskal Herrian asiloa eskatzen dutenentzako aldi baterako harrerazentroa), ACNUR (publicación de la revista "Errefuxiatuak" aldizkaria argitaratzen du), Urkamendi (Bizikidetzeta), Bachue (Mugarik gabeko herritarrek) eta Giza Eskubideak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazteria Zuzendaritza izango da Kultura Arteko eta Erligio Arteko Elkarriketari buruzko gazteen Nazioarteko III. Mintegiaren babeslea. Mintegi hori 2007ko eta 2008ko urrian egingo da. Ekimen hori Haretza elkarteak antolatu du, Pax Romana erakundearen laguntzarekin.</li> </ul>	<p>Aurrekontua, Inmigrazioa: 430.000 €</p> <p>Aurrekontua, Giza Eskubideak: 33.500 €</p> <p>Aurrekontua, Gazteria: 34.000 €</p>

Ekimena	Egoera	Balioespena	Irukin gehigarriak eta aurrekontua
Giza eskubideen alde diharduten erakundeei laguntza ematea	Gauzatze-bidean	<p>Bakearen eta Giza Eskubideen alde lanean diharduten erakundeei urtero diru-laguntzak emateko deialdiari esker, 70 proiekturi eman zitzaizen laguntza 2006. urtean. 2007. urtean, beste 98 proiekturi. Hona hemen proiektu horiei gorputza eta arima eman dizkieten erakundeetako batzuk: Clara Campoamor Elkarte, Ikertze, Jesús Mari Leizaola Elkarte, Gehitu, Largantza, Martxoaren 3ko Biktimak, Izan, Aldarte, ACNUR, Covite, Urkamendi, Gernikaren Bakearen Museoa, Gregorio Ordoñez Fundazioa, Hegoak Alde, Gesto por la Paz, ZINHEZBA, Lesbitoria-Gasteiz, HEIS, Asmoz, Setem, Aizan, Exil, Bachue, Itaka, EHGAM, La Fundación, Arrats, Sendia, Zubietxe, APSIDE, FOMED, Zegamako Herri Estola, Egunkariaren Adeke Kultur Elkarte, Euskaria, Gebehatokia, TAT, Gipuzkoako Eragozpen Elkarte, Arco, FECAPP, SOS Víctimas, Eurocampus, CEAR, Suspergintza, EDE eta Gernika Gogoratuz.</p> <p>Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, halaber, gazteriaren eremuan jardun horiek garatzen dituzten erakundeei laguntza eman die; hain zuzen ere, 21 proiektutarako laguntza eman du, eremu horretan diharduten gazte-erakundeei diru-laguntzak emateko urtero egiten duen deialdiaren bitartez.</p>	<p>Aurrekontua, 2006. urtean: 618.300 €</p> <p>Aurrekontua, 2007. urtean: 643.032 €</p> <p>Aurrekontua, Gazteria: 122.606 €</p>
Giza Eskubideen Nazioarteko Behatokia.	Egiteke	Ezaugarri horiek errespetatuta, era horretako tresna bat sortzen laguntzeko lanei ekin zaie berriz ere 2006-2007 denbora-tartean.	
Gatazkei aurre hartzeko europar sarearen alde laguntza ematea.	Gauzatze-bidean	Nazioarteko sare horren lanetan laguntza ematen duten erakunde publikoen elkarteko partaide da Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila. Aurreikusitakoaren arabera, zenbait mintegi antolatuko dituzte elkarrekin eta horien emaitzak argitaratuko dituzte euskaraz eta gazteleraz.	

**2. ardatza.**

**Terrorismoaren biktimei  
elkartasuna erakustea.**



## 2. ardatza. Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea.

Hogeita hamar urte luze darama euskal gizarteak terrorismoaren indarkeria jasan eta pairatzen. Frankismoaren diktaduraren atzetik, eta ondorengo demokraziarekin ere, ez ziren armen hotsak isildu, euren ideal politikoen alde bide baketsu eta demokratikoak erabiltzeari uko egin zioten pertsona batzuen armenak, alegia. Horiek, areriotzat dituztenei, euren ideia politikoak defendatzeko aukera, hilketaren, bortxakeriaren eta mehatxuaren bitartez galarazi baitiete.

Euskal herriaren izenean eta berori defendatzeko egin omen dute; hemen bizi garen guztiok gurea dugun Euskal Herriaren alde eta defenda ditzakegun ideia eta proiektu politikoak kontuan izan gabe. Dirudenez, gure herria defendatzeko eta gure izenean, euskal gizartearen izenean, erail, bahitu, estortsio egin eta mehatxatu dute.

Hala ere, eta horrela izanagatik, denbora horretan zehar emozioak mindu eta hunkituta zituen gizartea, urteak joan eta urteak etorri, beldurrak, ohikeriak eta fatalismoak jota, eman diren atentatu terroristei so egon da. Terrorismoaren biktimek pertsona maite bat galtzeaz gain, inguruan zuten erkidegoaren zati handi baten gaitzusteak pairatu dute. Biktimak eta euren oroimena ezabatzeko ahaleginari eutsiz, distantzia, utzikeria, axolagabekeria eta zuribide ikaragarriak lortu dituzte kriminalek ondorio doilorren artean.

Zorionez, terrorismoaren biktimek gaur egun duten garrantziaz eta, horiei begirunea eta elkartasuna erakusteko dagoen beharraz jabetuz joan dira gizartea eta euskal Erakundeak ere, azken urteotan.

Biktimen kolektiboek eurek, elkarte bakezaleek eta tokiko herri-erakundeek sustatuta, biktimak aitortu, gogoratu eta omentzeko ekintzak eta ekimenak areagotu egin dira. Horiei, gainera, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak eta, oro har, euskal alderdi politikoek eman dituzten aurrerapauso nabarmenak gehitu behar zaie.

### Jarduteko printzipio politikoak.

- Indarkeria- eta terrorismo-mota guztien aurrean erabateko gaitzespena azaltzen dugu, etikaren zein politikaren ikuspegitik.
- Terrorismoaren biktimen oinazea erabat eta baldintzarik gabe aitortzen dugu, biolentziaz eta izuaz baliatuz burututako bidegabekeriarik deitoragarriena den heinean.
- Egindako kaltearen oroimena, justizia eta aitormen alorreko aldarrikapen guztien alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Biktimek edozein bake-prozesutan duten funtsezko eginkizuna aitortzen dugu.

## 2. ardatzari buruzko ebaluazioa. Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakustea.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak lan handia egin du aldi honetan, batez ere hiru jardueraproiekturen inguruan: “Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendurako Lehen Jardunaldi Instituzionala” antolatzea, “Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko Legea” bultzatzea, eta Eusko Legebiltzarrak gai honi buruz 2007ko urriaren 5ean egin zuen ohiz kanpoko osoko bilkura.

### Errekonozimendua eta memoria

Zuzendaritzak bere jardunari ekin zion hainbat topaketa eta bilera eginez gure Erkidegoko hainbat Udaletako arduradun ugarirekin, beren udalerrien eremuan izandako terrorismoaren biktimei errekonozimendua agertzeko eta gorazarre egiteko ekintzak bultzatze aldera. Lan horren ondorioz, hainbat eta hainbat udalek omenaldia egin diete beren udalerrian izandako terrorismoaren biktimei, Gasteizen, Erreterian, Arrigorriagan, Durangon, Santurtzin, Azkoitian, Zarautzen eta Galdakaon.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Espainiako biktimen elkarkekiko harremanak areagotu egin ditu halaber. Lankidetzara horren adibide gisa, 2007ko urtarrilaren 24an eta 25ean, Gasteizen, Estatuko biktimen elkarkekiko antolatutako topaketa azpimarra daiteke. 2007ko ekainaren 13an, elkarke guztiei lan-jardunaldi baterako deialdia egin genien berriz, eta, bertan, Terrorismoaren Biktimen Errekonozimendurako eta Babeserako Legearen zirriborroa aurkeztu genien.

Aldi berean, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren biktimen familiei elkarkekiko pertsonalak egiteko bere programa zintzo betetzen jarraitzen du, eta gero eta dedikazio handiagoarekin Espainiako beste lekuetan ezarritako familiei egindakoekin. Banakako kontaktu hori eraginpekoen iritziak, haien eguneroko arazoak eta eremu pribatuan dituzten premia larrienak ezagutzeko metodorik egokiena dela ikusi da. Informazio hori zuzeneko da eta beraz balio handia du eragin handieneko erabaki politikoen atzean dauden hausnarketa-prozesuentzat.

### Terrorismoaren biktimen errekonozimendurako jardunaldi instituzionala.

Jardunaldi hori egin zen azkenean, eta egun hartan Bilboko Euskalduna Jauregian gertatu zen guztia bat etorri zen, guztiz, erakundeek eta euskal gizarteak bertaratu ziren biktimei eta bertaratu ez zirenei adierazi nahi zietenarekin. Bilboko ekitaldi instituzionala justiziako, kalteak ordaintzeko eta errekonozimenduko ekintza izan zen. Errugabeei egindako omenaldia izan zen, eta, bertan, premiazkoena zenean gehiago egin ez izanagatik zegokion erantzukizuna bere gain hartu zuen euskal gizarteak. Bilbon, gure memoria historikoak milaka euskaldunek eta espainiarrek jasandako sufrimendua hartu zuen aintzat, baita iraganeko akatsak konpontzeko asmo irmoa ere, etsipenean erori gabe.

### Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunari buruzko Legea.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hala eskatuta, Herrizaingo Sailak lege-proposamen bat landu du, eta biktimen kolektiboekin eta elkarkekiko aztertu ondoren Gobernu Kontseiluak onartu egingo du epe laburrean. Legegintza-proiektu horrek, batetik, Administrazioak ematen dituen prestazioak hobetzen ditu, eta, bestetik, omenaldi zintzo eta hunkigarria egiten die terrorismoaren biktimei, egin duten sakrifizioa kontuan hartuta. Une historiko honetan biktimen errekonozimenduaren helburuarekin euskal erakundeek hartutako konpromisoa agerian uzteko modurik onena da.

## Bakerako hezkuntzako testigantzak

Terrorismoaren biktimak eta horien testigantzak Bakerako Hezkuntzako programetan barne hartuko direla bermatzeko Eusko Jaurlaritzak orain arte egin dituen ahaleginek barne-tentsioak jasan behar izan dituzte, gaiari irmotasunez heldu izanak eragindako tentsio logikoak, hain zuzen. Gaur egun, hasierako arazo gehienak gaudituta daude eta inplikaturik dauden agente guztiak konpromisoa hartu dute Bakerako Hezkuntza Planean aurreikusitako ekimen guztiak bultzatzeko.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak pintadak eta kartelak kentzeko eta biktimen memoriaren aurka doan edozein ekintza debekatzeko hainbat ekimen garatu ditu.

Giza eskubideak eta bakea sustatzeko EITBrekin sinatu den Hitzarmen Markoak komunikabide publikoek terrorismoaren biktimei ematen dieten tratuaz jardun ahal izateko hausnarketa-eremuak sortzea ahalbidetu du.

Ekimena	Egoera	Balioespena	Irukin gehigarriak eta aurrekontua
Udalaren arloan biktimei begirunea erakustearen alde egitea.	Gauzatze-bidean	Omenaldiak egin dira Gasteizen, Erreterian, Arrigorriagan, Durangon, Santurtzin, Azkoitian, Zarautzen eta Galdakaon.	
Erakusketa ibiltariak sustatzea eta hedatzea.	Gauzatze-bidean	Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak onartu du ekimen hori.	
Biktimenganako begirunea erakutsi eta zabaltzea, horretarako hedabideak erabilita.	Gauzatuta, 2007ko ekitaldian	2007ko apirilean egin zen urte horretako kanpaina, lelo hau zela gidari: "sentitzen duzu".	Aurrekontua: 600.000 €
Talde eta elkarten bidez, biktimenganako aitormena bultzatzea.	Gauzatze-bidean	Zenbait topaketa egin dira helburu horrekin. Aipagarriak dira 2007ko urtarrilaren 24 eta 25ean egindako jardunaldiak.	
Terrorismoaren biktimei begirunea erakusteko jardunaldi instituzionala.	Gauzatuta, 2007ko ekitaldian	Jardunaldi hori 2007ko apirilaren 22an egin zen Bilboko Euskalduna jauregian; estatu osotik etorritako ehunka senidek eta biktimak hartu zuten parte bertan.	Aurrekontua: 150.000 €
Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko Legea.	Gauzatze-bidean	Legearen zirriborroa biktimen elkarteei aurkeztu zaie, eta gaur egun izapideak hasita daude, ondoren Eusko Legebiltzarrean onar dezaten.	

Ekimena	Egoera	Balioespina	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Herri Administrazioak biktimengana hurbiltzeko bidea finkatzea.	Gauzatze-bidean	Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak biktimekin eta haien ahaideekin harreman pertsonalizatuak izateko programa garatu du. Horren osagarri, Zuzendaritza horren ordezkariak pertsona horiekin bertaratu dira Audientzia Nazionalan egin diren epaiketetara.	
Baliabide materialak eta laguntzak ematekoak sendotu eta hobetzea.	Gauzatze-bidean	Helburu horretarako diru-kopurua gero handiagoa da: 2003an 120.203 € izan ziren, eta 2006an 400.000€.	Aurrekontua, 2006. urtean: 240.000 € Aurrekontua, 2007. urtean: 400.000 €
Biktimentzat iraingarri izan daitezkeen pintadak eta kartelak kentzea; biktimentzat iraingarri izan daitezkeen kale eta plazen izenak berraztertzea.	Gauzatze-bidean	Zeregin hori udalen eta foru aldundien eskumenekoa da, eta, beraz, Zuzendaritzak informazio- eta sentsibilizazio-lana besterik ez du betetzen.	
Komunikabideetan terrorismoari buruzko berriak emateko kode etiko bat bultzatzea.	Egiteke	Biktimen Zuzendaritzak gai honi hurbiltzen hasteko Mahaia antolatu zuen lehen aldiz 2007ko ekainaren 13an.	
Bakeari begira egindako heziketa-programetan terrorismoaren biktimak agertu eta horien testigantzak jasoko direla bermatzea.	Gauzatze-bidean	Biktimei laguntzeko Zuzendaritzak unitate didaktiko bat osatu du; hezkuntza-sarean sartuko dena 2008ko otsailatik aurrera.	

### **3. ardatza.**

**Oroimen historikoa berreskuratzea  
eta frankismo-garaiko biktimei  
ordaina ematea.**



### 3. ardatza. Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea.

Errepublikaren aurkako altxamendu militarrek ekarri zuen Espainiako gerra zibilaren ondoren (1936-1939), diktadura ikaragarria ezarri zen Espainiar Estatuan. Horretan zehar, herritar ugari, giza eskubideen eta oinarriko eskubideen aurkako gehiegikeria eta urratze larriak pairatu zituzten.

Era guztietako metodoak erabili zituen Francoren diktadurak, nazioarteko testuingurura egokitzuz egiten bazuen ere, izua eta errepresioa ezartzeko helburuarekin, eta gerra zibilean garaitutakoen erresistentzia eta duintasuna zapaldu nahian.

Diktadurak gogortasun osoz sistematikoki erabilitako ekintzen artean honako hauek aipa ditzakegu: gizakiak desagerraraztea, tortura, lan, ideologia eta hizkuntza arloko diskriminazioa, errepresio politikoa eta sexu, arraza zein erlijiozko arrazoiengatik jazarpena, eta ez bakarrik kolpe militarrean galtzaile izan zirenen aurka, baita beren senitarteko eta lagunaren aurka ere. Nahikoa zen “gorri” edo “separatista” baten emaztea, seme, alaba, ahaide edo laguna izatea, diktaduraren errepresioa jasateko.

Estatu espainiarrak, izan ziren bezala aitortu eta onartu ez dituen krimenak eta giza eskubideen urratze larriak izan ziren.

Frankismo-garaiko biktimak erabat ahaztu ditu Espainiako trantsizio demokratikoak. Diktadurako berrogei urte luzeetan pairatutako oinazeak ez du oraindik merezi duen aitormena jaso.

#### Izkututako Errealitatea

Oraindik ere, militarrek altxatu zireneko 70. urtera, ez dugu egiazki ezagutzen gertatutakoa. Ehun milaka errepresaliatu eta erbesteratu, milaka gorpu soro eta bide-bazterretan, fusilatu ondoren izenik gabeko hilobietan ehortziak; hamaika kartzelaratu eta torturatu, eta diziplina-batailoietan bortxazko lanetan aritzera behartuak...; ezkutuan gorde da egia trantsizioaren ondoren ere. Ez dute jasandako errepresioaren berri eman ahal diguten dokumentuetara heltzen utzi eta, zailtasunak jarri dituzte, hainbatetan, besterik gabe, testigantza horiek jasotzen zituzten artxiboak suntsitu eta desagerrarazi egin dituztelarik.

Frankismo-garaiko diktaduran izan zen errepresioa ezkutatu garatu zen “ereduzko trantsizioa” izena daraman hori. “Deserosoa” suertatzen zen frankismo-garaiko biktimen oroimena, eta berriz ere isilik eta ahaztuta jarraitu zuten. Honela, gerra zibileko zauriak baztertu egiten zirela pentsatu zuen gizarteak. Baina, egia ezkutatuta, gizarte baten historia zatia “ostu” eta, hori gabe garatutakoa sortu da. Herri-aginte guztioi eta gizarte osoari dagokigun betekizun morala da, Frankismo-garaiko biktimekin eta euren borrokaren eta jazarpenaren eragile izan ziren ideiekin, trantsizio demokratikoak erakutsi ez zuen begirunearen zorra ordaintzeko betebeharra, urte luzeetan bidegabe ahaztuta egon ondoren merezi dutena jaso dezaten eta egungo gizartearen artean pairatutakoa ezagutarazi eta iraunarazteko. Honela, gure iraganeko onena eta zintzoena geureganatu eta gure historiaren orrialde izugarri bati duintasunez aurre egin ahal izango diogu, eta aldi berean, egiazko bizikidetzaren oinarria ezarriz. Teruelgo hilobi bateko epitafioak dioen legez: “Betiko, ahazten gaitzuenean hilko gara”, eta, are okerrago, euren borrokaren eta jazarpenaren eragile izan ziren ideiak, askatasuna, demokrazia, elkartasuna, justizia sozial eta aurrerabidea ahaztekotan, horien izenak Historiatik ezabatuko ditugulako.

### Jarduteko printzipio politikoak.

- Frankismo-garaiko biktimei zor zaiena aitortu eta begirunea bermatze aldera, egia jakiteko eskubidearen aldeko konpromisoa azaltzen dugu.
- Oroimen historikoa berreskuratzeko borondatea berretsi eta frankismo-garaiko biktimek ordain moral eta ekonomikoa jasotzeko duten eskubidea aldarrikatzen dugu.
- Gerra zibileko zauriei duintasunez aurre egiteko eta orduko izugarrikeriak gogorarazteko beharra azaltzen dugu, ezein ideia edo proiektu politiko totalitarioren izenean inoiz errepika ez daitezen.

### 3. ardatzari buruzko ebaluazioa. Oroimen historikoa berreskuratzea eta frankismo-garaiko biktimei ordaina ematea.

2006. urtean, errepublikaren aurkako altxamendu militarren 70. urteurrena bete zen. Altxamendu hura guda zibil lazgarri baten abiaburua izan zen. Hori dela-eta, gertakari haiek gogora ekartzeko eta oroimen historikoa berreskuratzeko, erakundeek ekimen-programa berezi bat jarri zuten martxan. Ekimen horietako zenbait jarraian dituzue azalduta. Batzuk urteurrenarekin batera agortuko dira, baina beste batzuk etorkizunean ere izango ditugu gure artean, eta, horregatik ebaluaketak epe ertain edo luzerakoa beharko du izan.

Ekimen berezien artean aipa ditzagun "Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena" gogora ekartzeko ekimena, "George Steer-en omenaldia", "Gudariaren monumentua", "Fusilatutako eta desagertutako omentzeko ekitaldiak", "Gudako umeak" omentzeko ekitaldiak, "Matxitxakoko eta Intxortako gudaldiak" gogora ekartzeko ekitaldiak, "Lehen Eusko Jaurlaritzaren osatu zeneko 70. urteurrena ospatzeko ekitaldia" eta lehen Eusko Jaurlaritzaren azken kontseilua gogora ekartzeko ekitaldia. 2006.ean bertan, nazien okupazio-garaian Gursko kontzentrazio-eremura eraman zituzten 6.000 euskaldunak gogora ekartzeko beste ekitaldi bat (kontzentrazio-eremu hori Frantzia dago), eta 1938 eta 1944 bitartean Saturrarango (Mutrikuko) espetxean preso egon ziren emakumeak omentzeko beste bat ere egin ziren.

Etorkizunerako ekintzen artean, berriz, Bakea eta Elkarbizitza Ekartzeko Planean, garai hartako hainbat argitalpen atzera berriro osatzen eta argitaratzen laguntzeko asmoa ere ageri zen. Eta, horrenbestez, IVAParen bidez, lehen Eusko Jaurlaritzari buruzko hainbat argitalpen berriro argitaratzeko lanak egin dira, eta "Gereziak Euskadin" egitasmoa ere bertan dugu, gauzatze-bidean. Egitasmo horrek orain arte inoiz argitaratu gabeko argazki-bilduma bat ekarriko du argitara, narrazio literario batez osaturik. Filosofia horren beraren haritik, Herrizaingo Sailak guda zibilaren zuzeneko 99 lekukori elkarrizketa bana egiteko lana agindu du. Elkarrizketa horiek, gero, Iragi artxiboan geratuko dira, 2007ko ekainaren 19ko Gobernu Kontseiluak artxibo hori "Guda Zibileko, Erbesteko eta Frankismoko Agiriatarako Ondare Zentro" izendatu baitzuen.

Politikaren arloan, berriz, Eusko Jaurlaritzak hainbat erakunde-adierazpen egin du, gertakari haiek gogora ekartzeko: "Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena dela-eta eginiko erakunde-adierazpena" eta "Adingabeen eta zibilen ebakuazio handiaren 70. urteurrena dela-eta Eusko Jaurlaritzak eginiko adierazpena".

Azkenik, frankismoaren biktimei ordaina emateko programak bere lanik handienak dagoeneko eginak baditu ere, gai hori dela-eta, Bakea eta Elkarbizitza Ekartzeko Planean bazen beste helburu bat, orain betetzen ari dena, hau da, diziplina-batailoietan zigorturik egon zirenak ere programa horretara biltzea eta zain dauden kasuak berriro aztertzea.

Ekimena	Egoera	Balioespena	Irukin gehigarriak eta aurrekontua
Frankismoaren matxinadaren 70. urteurrena dela-eta, omenaldi-egitasmo bat garatzea.	Amaiturik	<p>Frankismoaren matxinadaren aurka borrokatu ziren pertsonen eta erakundeen omenez, 2006 eta 2007. urteetan Eusko Jaurlaritzak hainbat ekimen eraman du aurrera. Besteak beste, aipa ditzagun lehen Eusko Jaurlaritza osatu izanaren 70. urteurrena ospatzeko ekitaldia, Gernikaren bonbardaketaren 70. urteurrena oroitzeko ekitaldia eta Matxitxakoko eta Intxortako gudaldiak oroitzeko ekitaldiak.</p> <p>Eta beste ekitaldi orokorrago bat ere egin zen, pertsona horiek denak gogora ekartzeko eta omentzeko. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Zuzendaritzak antolatu zuen, Casilda parkean, 2006ko otsailaren 20an. Han izan ziren Lehendakaria, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua, Bilboko alkatea eta oroimen historikoa berreskuratzen diharduten hainbeste elkarte.</p>	Aurrekontua: Eusko Jaurlaritza osatu izanaren 70. urteurrena.
Gerra- eta frankismo-garaiko errepresioa krudeltasun bereziz pairatu zuten taldeei begirunea erakusteko ekitaldiak sustatzea.	Gauzatze-bidean	<p>Hona hemen helburu hori lortzearren garatu diren ekimen nagusiak eta oraintxe gauzatzen ari diren egitasmoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nazien okupazio-garaian Gusrko kontzentrazio-eremura (Frantzia) eraman zituzten 6000 euskaldunak gogorarazteko ekitaldia, 2006ko maiatzaren 27an. Gernikako Arbolaren kimu bat landatu eta oroimen-plaka bat eta hilarri bat jarri zituzten. Han izan ziren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua, Kultura sailburua eta Frantziako hainbat agintari eta elkarte errepublika zale.</li> <li>- Saturrarango espetxean (Mutrikun) 1938tik 1944ra arte preso izan ziren emakumeak omentzeko ekitaldia. Emakume haietatik oraindik ere bizirik dauden 6 eta hainbat eta hainbat elkarte eta erakunde izan zen bertan, espetxe hartan preso izan ziren emakume guztiak omentzeko gogoz.</li> </ul> <p>Frankismo-garaian Nanclaresen barneraturik izan zituzten homosexualak omentzeko ekitaldia, 2007ko urrian egitekoa da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gudako umeak omentzeko ekitaldia, Santurtzin. 2007ko azken hiru hilekoan da egitekoa.</li> </ul>	
Ikus-entzunezko artxibategia eta gerra zibileko Euskal Ondare Historikoa berreskuratzea.	Gauzatze-bidean		
Frankismo-garaiko errepresioaren eta erbestealdiaren inguruko erakusketa ibiltaria. Egitasmoa: "Oroimen bizia".	Egiteke		
Frankismo-garaiko espetxeratuen eta errepresioaren biktimen egiaztagiriak eta artxiboak berreskuratzea.	Gauzatze-bidean	Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak historialari-talde bat du kontraturik 2004.etik, espetxean izan ziren gizon-emakumeen eta errepresio frankistaren beste biktima batzuen egiaztagiriak berreskuratzeko.	

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkín gehigarriak eta aurrekontua
Diziplina-batailoietañ kondenañta egon zireñei kalte-ordain ekonomikoá emateko programa areagotzea.	Amaiturik.	Neurri honi esker, biztanle gehiagok izan dute kalte-ordain ekonomikoak jasotzeko programa honetara biltzeko aukera.	
Frankismoaren biktimei zuzendutako laguntza-programen barruan zain dauden kasuak aztertzea.	Gauzatze-bidean	Gaur arte, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak laguntzen zain dauden kasu berriak aztertu ditu.	
Politikaren eta legearen arloko ekimenak, Espainiar Estatuan eta Europar Batasunean Frankoren diktadura gaitzesteko eta frankismoaren biktimei begirunea erakusteko.	Gauzatze-bidean	Gai hau dela-eta, Eusko Jaurlaritzak erakunde-adierazpen bat baino gehiago egin du: - Gernikako bonbardaketaren 70. urteurreña dela-eta eginiko erakunde-adierazpena. 24/04/2007  Adingabeen eta zibilen ebakuazio handiaren 70. urteurreña dela-eta Eusko Jaurlaritzak eginiko adierazpena. 23/05/2007	

## **4. ardatza.**

**Askatasunen Defentsa  
eta Eskubide Zibilak  
eta Politikoak Berreskuratzea.**



## 4. ardatza. Askatasunen Defentsa eta Eskubide Zibilak eta Politikoak Berreskuratzea.

Gizakiaren duintasunarekiko eta giza eskubideekiko errespetua da, libre, demokratiko, zuzen eta solidario izan nahi duen bizikidetzaren oinarri behinena. Giza eskubideak ez dira boterearen oztopo hutsak, oso bestelakoa eta zabalagoa da duten eginkizuna, bizikidetzaren funtsezko balioak baitira. Gero eta gizarte zuzen eta solidarioago baten oinarri izango diren jokabide-kodearen eta gizartearen antolamendu-printzipioen iturri dira giza eskubideak.

Horregatik, banakoaren zein taldearen giza eskubideen aldeko lana eta sustapena, herri-aginteei ez ezik, gizarte osoari eta hori osatzen duten erakunde guztiei ere badagozkie. Izan ere, besteen eskubideekiko errespetuan eta horiek betetzean baitatza, pertsonari dagozkion eskubideei buruzko ikuspegi indibidualistaren eta Giza Eskubideek ezartzen duten ikuskera sozial eta solidarioaren arteko ezberdintasuna. Azken honek, hain zuzen ere, gizarte ireki eta anitzen berezko sistema eta kultur balioetat hartzen ditu, non, errealitate hori osatzen duten eskubideen eta kide guztien arteko mendekotasuna nortasun-adierazle baiten.

### Giza Eskubideen Ikuspegi Dinamikoa

Hala ere, giza eskubideen ikuspegi dinamikoa eta solidario honek, lehen mailako giza eskubideak ditu oinarri, gizakiaren askatasunen eremua bermatzera zuzentzea helburu berezi zuen ikuspegiaren funtsezko jarraibidea, estatuaren boterearen legez kontrako esku-hartzerik gabeko eremu librea zena. Herri-boterearen zilegizko indarkeriaren monopolioak zikliko bihurtzeko arriskua duela egiaztatzean, eskubide zibil eta politikotzat ezagutzen direnak, gure kultura juridikoan, bilakaera –eta erantzun zibilizatu- gisa txertatzen dira, hiritarraren eskubide behinenak gehiegikeriaz eta min egiteko erabiliak izan ez daitezten.

Espiritu horrek bultzatu zuen 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena onartzera, 1948ko Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Gutunean jasotako printzipioez baliatzerakoan, funtsezko askatasunak munduko justiziaren eta bakearen oinarri direla egiaztatzean. Oinarri horiek, batetik, 1966ko Eskubide zibil eta politikoen Hitzarmenean, eta bestetik, urte bereko Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Hitzarmenean barne hartu ziren, horrela, gure artean eta munduan, giza eskubideen kultura juridikoki gauzatzeko abiapuntua izango zenaren –Konstituzioa bera- erreferentzia-gune sendoa osatzeko bideari jarraipena eta zehaztapena ematen zitzaizlarik.

Espainiako 1978ko Konstituzioak ere bere egin zituen pertsonaren eskubide horiek eta, giza duintasuna babesteko, ezinbestez errespetatu behar direla azpimarratu zuen. Izan ere, gizon-emakume bakoitzari datzekion duintasun hau baita, botere publikoa arautzeko –eta horren garapenaren menpekoko- giltzarria eta bere zilegitasunaren oinarria. Beraz, Konstituzioak eskubide horien funtsa errespetatzera ez ezik, horiek eraginkortasunez betearaztea eskatuko duten arau guztiak ateratzera ere derrigortzen du. Eta horiek horrela, eraginkortasunez gauzatzeko dela bermatuko dituzten eskubideak eta arauak onartu beharko dira ezinbestez, hots, ukaezinezko programa arautzaile eta menpekoko, hiritarrek pertsona gisa, indibidualki zein gizarte eta talde-politikaren ikuspegitik, askatasunez garatzerik izan dezaten.

### Erregresio Fasea

Baina giza eskubideak, onartuta ere, ez dira erreferentzia estatikoak, amaigabeko errespetu eta bermearen ereduak maila gorenean jartzeko helburuarekin, gizarteek azken batez bereganatu nahi dituzten puntuak baizik. Giza eskubideak edukiz jantzi nahian, eta oinarrizko eskubideak babesteko dituen jarraibidea ahalik eta eraginkorren moldatzeko asmotan, erregresio eta progresio faseak ezartzen dituzte historiaren gorabeherak. Eta gaur egun, eta ez bakarrik gure artean –hala bada ere-, berebiziko jazoera terroristarik ankerrenek –irailak 11 (New York), martxoak 11 (Madril)...- markatzen duten erregresio-fasean bizi gara, behin eta berriz errepikatu den eztabaidari, askatasunaren eta segurtasunaren artekoari, bide emanaz. Dirudienaz, demokraziaren mehatxuei litekeen eraginkortasun

handiagoz aurre egitearen alde, eztabaida horrek giza eskubide horien eraginkortasuna alde batera uztera eta askatasun-eremuak murriztera bultzatzen ditu segurtasun-politikak.

Amnistia Internazionalerako edo Human Rights Watch bezalako erakundeen urteko txostenek behi eta berriz salatzen duten bezala, gerta daiteke segurtasunaren aitzakia erabiltzea, giza eskubideak urratzeko edo, behinik behin, orain arte itxuraz finkatuta zeuden askatasun-eremuak nabarmen murriztuko dituzten legezko marko eta eztabaida ezartzeko. Kofi Annanek, NBEko idazkari nagusiak, nahigabez onartu zuen Demokrazia, Terrorismo eta Segurtasunari buruzko Madrilgo Biltzarraren (2005eko martxoa) amaiera-ekitaldian, giza eskubideei buruzko nazioarteko adituak bat datozela, egun Estatuetan terrorismoaren aurka ezartzen diren politika berri askok giza eskubideak eta oinarriko askatasunak urratzen dituztela egiaztatzean.

#### Jarduteko printzipio politikoak.

- Pertsona guztien giza eskubideen nahiz askatasun zibil eta politikoaren alde lan egiteko konpromisoa azaltzen dugu.
- Eskubide zibil edo politikoak urra ditzaketen tresna eta metodo mota guzti-guztien aurkako gaitzespena azaltzen dugu.

#### 4. ardatzari buruzko ebaluazioa. Askatasunak defenditzea eta eskubide zibil eta politikoak berreskuratzea.

“Askatasunak defendatzeko eta Eskubide Zibilak eta Politikoak Berreskuratzeke”, zortzi ekimen daude aurreikusita, atal honetan ikusiko duzuen bezala. Bakea eta Bizikidetzaren Ekartzeko Planaren erabakita zegoen moduan ari dira gauzatzen, baina, atal hau ebaluatzeari ekin baino lehen, garbi utzi behar da gai honetan eskubide-urraketak zuzentzeko eta halakorik ez gertatzeko politika eraginkor bat egiteko beharrezko gakoak ez daudela Eusko Jaurlaritzaren esku. Eskubide zibilen eta politikoaren arloan gehiegikerietarako bidea zabaltzen duten legegintza-eskumenak estatuko gobernuarenak dira, eskusibitatean. Eta, ebaluatu dugun denbora-tartean, zoritxarrez, egoera hori aldarazteko eskumena duten erakundeek ez dituzte beren politikak gehiegi aldatu.

Bada beste gauza bat ere, alde aurretik jakin beharrekoa. Bakea eta Elkarbizitza Ekartzeko Planak ez ditu bere ekimen guztiak batera gauzatzen, aldizka-aldizka baizik. Hain zuzen ere, estreinako urtean, zeharkako ardatzak izateagatik, lehenengo eta azkeneko ardatzek jaso dute bultzadarak handiena, giza eskubideen sustapen orokorrak eta bakerako heziketak. Eta beste bi arlo-programa hauek ere bizkorrago egin dute aurrera: oroimenari buruzkoak –batez ere 70. urteurrena bertan zelako eta hori nolabait landu beharra zegoelako-, eta terrorismoaren biktimei buruzkoak. Hain justu ere, eskubide zibilei eta politikoei buruzko ardatzetan (4. ardatzean) eta, haien artean, torturari aurrea hartzeko eta presoaren eta atxilotuen gaia jorratzeko politikan (5. ardatzean), plangintza halakoxea izan dela eta, lanik handienak urte-amaieratik aurrera dira egitekoak. Kontua ez da, soil-soilik, ezinezkoa dela Bakea eta Elkarbizitza Ekartzeko Planaren baitako ekimen guztiak batera martxan jartzea. Horretaz gainera, bi ardatz horietan hartu beharreko neurriek askoz ere prestakuntza-lan xeheagoa behar dute –urteroko txostenek buruzko lana, esate baterako-, eta lan hori ari gara egiten orain, jendaurrean ezagutzera eman aurretik. Egutegiaren nondik norakoak, hortaz, arrazoi teknikoak ditu atzetik, eta ez lehentasun politikorik.

Muga horiek abiaburu ditugularik, funtsean, 4. ardatzeko ekimenek eskema honi jarraitzen diote: eskubide zibilak eta politikoak zertan diren jakiteko informazio-tresna fidagarriak sortzea (informazioa); tresna horietan oinarriturik, zuzenbide erkatura eta nazioarteko zuzenbidera jotzea eta politiken alderaketa bat egitea (gogoeta); eta, azkenik, gizartea gauza hauetaz jabetzeko eta salaketa publikoak egiteko politika bat taxutzea (sentsibilizazioa-salaketa). Gaika, berriz, badira bi multzo berezi, eskema horri jarraitu beharko diotenak: informazio-askatasunarekin zerikusia duten gaiak (batez ere egunkariak ixtea), eta, orokorrean, ea, 2000 eta 2003ko lege-eraberritzeak egin eta gero (jurisprudenzian ekarri dituzten aldaketak ahaztu gabe), terrorismoaren aurkako politika berriak benetan nola aplikatu diren.

### Informazio Askatasuna

Horretarako, egoerari antza hartzeko txosten batzuk egitea aurreikusi zen: informazio-askatasuna zertan den jakiteko, txosten bakarra, eta terrorismoaren aurkako arauak aztertzeko, berriz -gaia bera konplexuagoa eta zabalagoa izanik eta ondorioak etenik gabe dakartzanez-, txostenak aldiari aldiarekin izango dira. Hala, bada, Euskadin komunikabideak ixteko prozesuak zertan diren jakiteko txosten juridikoa prest dago. Unibertsitateko antolakunde independente batek egin du –Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Kriminologia Institutuak-. Une honetan, txosten hori argitaratzeko prestatzen ari dira. Horretarako, alde aurretik aztertu egin zen, baita osatu ere, Komunikabideak eta Gatazkari buruzko Jardunaldi baten bitartez. Jardunaldi hori 2007ko azaroaren 5ean egin zen, eta txosten hori egiteko azken fasea izan zen; bertan, nazioarteko jurista adituen talde batek bere ondorioak landu zituen. Adituen taldeak honako hau ondorioztatu zuen: Egin eta Egunkaria egunkariak eta Egin Irratia itxi izana legez kanpoko eta konstituzioaren aurkako da, eta Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmena urratzen du.

Bigarren txostenak, hau da, terrorismoaren aurkako arau-saldok ikeragarria (alderdien legea barne) benetan nola betetzen den ikusteko balio behar duen horrek ere jaso du lehen bultzada, berebiziko garrantzia duen bultzada. Hemen, ezinezkoa zen eduki-txosten bat egitea, hori baino lehenago txosten-eredua zehaztu beharra baitzegoen. Txosten-eredu hori ere prestatu dago, eta, 2008. urtearen hasieran, nazioarteko hainbat adituk aztertuko du, baliozkotzeko. Orduan aginduko dugu, 2008. urtean zehar, lehenengo eduki-txostena.

Aurreikusi ditugun gainerako ekimenak bi multzotan sailka daitezke, argiago azaltzearren: jarduera-programak eta ekimen politikoak. Hauek izan dira jarduera-programa garrantzitsuenak: “Tolerantzia sustatzeko hezkuntza-tresna bat diseinatzea eta martxan jartzea”, “Askatasun zibilen eta balore demokratikoen esparruan lan egiten duten gizarte-ekimenak bultzatzea”, eta “Lehen belaunaldiko oinarritzko eskubide eta askatasunak gauzatu ahal izateko ahalik eta lanik handiena egitea”.

Kopuruari eta aurrekontuen zenbatekoari erreparatu gero, arlo honetan diharduten gizarte-ekimenen atala da esanguratsua. Erakundeetarako diru-laguntzen eta laguntzen deialdian, 2007. urtean, Giza Eskubideen Zuzendaritzak gai honi buruzko lehentasunezko lan-ildo bat zabaldu zuen.

### Gizartea Bakegintzan

Ekimen zehatzak aipatzekotan, “Gizartea bakegintzan” izeneko unitate didaktikoaren proba egiteko gida-bide bat egitea eta martxan jartzea ere aipatu behar da, lehen-lehenik. Jendea giza eskubideen alde sentsibilizatzeko eta gatazkak indarkeriarik erabili gabe konpontzeko lanaren azalpen moduko bat egitea da material horren helburua, lehen hurbilketa orokor bat eta sarrera moduko bat. Gida-bide hori dagoeneko garatzen ibiliak dira DBHko ikastetxe batzuetan, halako tresna orokor bat taxutzea lortzearren, gero, gure erkidegoko hezkuntza-sare osoko bigarren hezkuntza orokorrean erabiltzeko. Azaroan Euskal Herriko Unibertsitateari (UPV-EHU) buruzko kanpo-ebaluazioa jaso eta argitaratu zen, eta oso egokia izan zen; izan ere, ebaluazioan ondorioztatu denez, eragin positiboak izan dira. Une honetan, adierazitako ebaluazioan bildutako hobekuntza-iradokizunetan oinarrituta, programa berrikusteari ekin zaio, 2007-2008 ikasturtean beste gidabide bat egiteko. Gidabide horrekin konbinatuta terrorismoaren biktimei

buruzko beste proiektu pilotu bat egingo da giza eskubideei eta terrorismoaren biktimei buruzko esku-hartze mistoko azken Unitate bat sortzeko.

Ekimen politikoen alorrean, berriz, erakundeek hainbat eta hainbat aldarrikapen eta adierazpen egin dute. Baina, garrantzi handienekoak aipatzearen, gogoan izan 2007ko maiatzean Eusko Jaurlaritzak eskubide zibil eta politikoen aldeko Erakunde Adierazpena eman zuela argitara. Eskubide zibilak mugatzen edo urratzen dituzten arauak eta legeak aldatzeko eskatzeko emandako hitza bete nahian, 2007ko apirilean, Eusko Legebiltzarrak alderdi politikoei buruzko legedia aldatzeko eskaria egin zuen, eta Justizia sailburuak, urte horretan bertan, alderdien legearen aurkako erakunde-adierazpen bat eta justizia-administrazioaren egoerari buruzko beste bat aurkeztu zituen.

Baina, azken hamabi hilabeteetan gizartean eta politikan eraginik handiena izan duen konpromisoa izan da “Lehen belaunaldiko oinarritzko eskubide eta askatasunak gauzatu ahal izateko ahalik eta lanik handiena egitea”, Ibarretxe lehendakariaren auzipetzearekin zerikusia duela-eta. Zailtasunak zailtasun –eta ez dira gutxi izan-, Eusko Jaurlaritzak jakin du euskal erakundeek eta berariaz iritzi- eta adierazpen-askatasunik gabe geratu ez den herritar orok politikan jarduteko duten eskubidearen alde egiten.

Azkenik, gauzatze-bidean diren eta legegaldia amaitu baino lehen garatzekoak diren egitasmoen artean, Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenari buruzko mintegi bat ere egitekoa dela eta gai horri buruzko graduatu ondoko ikasketak sustatzeko asmoa aipatu behar. Ondorioz, planean aurreikusita dauden 8 ekimenetatik, 7 garapen-bidean daude, eta 2 gauzatzeke geratu dira.

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Tolerantziari buruzko tresna pedagogikoa diseinatu eta abiaraztea.	Gauzatze-bidean	Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan, “Gizartea Bakegintzan” izeneko unitate didaktikoa egin du. Material hori probaturik dago, abiaburuko egitasmo baten bidez. Sei ikastetxetan garatu dute, 2006ko apirilean, maiatzean eta ekainean.	Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren unitate didaktikoaren osagarri gisa egin dira material hauek.  2007-2008 ikasturtean, gidabidea egingo da berriz ere, hobetua, eta beste esperientzia batera zabalduko da, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren Unitatean oinarrituta. Gidabidea amaitzen denean eta ebaluaketa egiten denean, orduan argitaratuko dira behin betiko materialak.
Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenari buruzko mintegia.	Prestatze-lanetan	Mintegi hori 2008-2009 bitartean da egitekoa.	

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkín gehigarriak eta aurrekontua
Askatasun zibilen eta balore demokratikoen arloan diharduten gizarte-ekimenak bultzatzea.	Gauzatze-bidean	Arlo honetan diharduten erakundeetarako diru-laguntzen deialdian bazen lehentasunezko jardueraildo berezi bat, propio, eskubide zibil eta politikoak sustatzeko lan egiten duten programak bultzatzeko bidea ematen duena.	Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2008 eta 2009ko deialdian ere lehentasunezko jardueraildo horri bere horretan eusteko asmoa du.
Legebiltzarraren eta erakundeen hainbat ekimen, eskubide zibilen eta politikoaren urratetaren aurka.	Gauzatze-bidean	2006-2007 bitartean, arlo honetako hainbat ekimen aurkeztu zen. Aipa dezagun Eusko Jaurlaritzak "Alderdien Legearen" aurka egin zuen erakunde-adierazpena, 2007ko maiatzean ezagutzera emana.	Arlo honetan bertan, terrorismoaren aurkako arauen aplikazioari buruzko urteroko txosten-eredua 2008. urtearen hasieran da aurkeztekoa.
Eskubide zibil eta politikoak mugatzen edo urratzen dituzten lege-arauak aldatzea.	Deialdia, egina	Eusko Legebiltzarrak, 2007. urtean zehar, bi bider eskatu du alderdi politikoei buruzko legedia aldatzeko eta egokitzeko.	
Lehen belaunaldiko oinarrizko eskubide eta askatasunak gauzatu ahal izateko ahalik eta lanik handiena egitea.	Gauzatze-bidean	Bitarte honetan, Eusko Jaurlaritza, bere eskumenen esparruan, bereziki kontu handiz saiatu da euskal herritarrek beren eskubide zibil eta politikoak bete-betean erabili ahal izan ditzaten.	Eta konpromiso hori noraino bete duen gogoan izateko, horra hor -adibiderik argiena-, Ibarretxe lehendakariaren auzipetzea, euskal gizarteak dituen sentsibilitate politiko guztiekin hitz egiteagatik gertatu baita.
Informazio-askatasunaren aldeko sentsibilizazio-neurriak garatzea.	Amaitze-fasean	Euskal testuinguruan informazio-askatasuna zertan den jakiteko, Giza Eskubideen Zuzendaritzak txosten bat amaitu du. Adierazitako txostena gai horri buruz 2007ko azaroaren 5ean egindako nazioarteko mintegian aurkeztu da.	Behin betiko ondorioen eta txosten osoaren argitalpena prestatzeari ekin zaio, Eusko Legebiltzarrera, Espainiako Parlamentura eta giza eskubideen arloan diharduten Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko erakundeei helarazteko.

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkin gehigarriak eta aurrekontua
<p>Euskal hedabideak itxita sortzen den egoera larriaz ohartzea, eta horri buruz hausnarketa sustatzea.</p>	<p>Gauzatze-bidean</p>	<p>Bakearen eta giza eskubideen arloan lan egiten duten erakundeetarako diru-laguntzetarako eta laguntzetarako deialdian, 2006. eta 2007. urteetan ildo honetako egitasmoei ere lagundu zitzairen, berariaz. Eskubide zibil eta politikoen aldeko adierazpenean ere heldu zitzaion arazo honi 2007. urtean (adierazpen hori uztailean eman zen argitara). Komunikabideen egoerari buruzko txostena egiten badugu, eta nazioarteko mintegi batera eramaten badugu, behar besteko zabalkundea lortzeko aukera eduki beharko genuke, eta horrek, jakina, oinarri moduko bat izan behar luke, ezinbestekoa, gizarte-irritzi kritikoa sortzeko, edozein gizarte demokratikotan behar den moduan.</p>	

## **5. ardatza.**

**Torturari aurre hartzea  
eta atxilo nahiz preso  
hartutako pertsonen giza  
eskubideak defendatzea.**



## 5. ardatza. Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen giza eskubideak defendatzea.

Pertsona guzti-guztien giza duintasunaren justizian eta errespetuan oinarritutako gizarte-bizikidetzaren bermatzeko gaitasuna, horixe da, funtsean, Askatasunen Estatu baten, Estatu sozial eta Demokratiko baten oinarria eta zilegitasuna.

Estatuak gizartearen bizimoduan esku hartzeko eta bizikidetzaren hori arautzeko moduaren arabera egokitu eta moldatzen dira balioak, printzipioak eta eskubideak. Eta hori dela-eta, hiritarrak eskubideez gabetzean (zigorrak ezarri) izan ditzake esku-hartze horrek ondoriozko drastikoenak, eta orduan da printzipio horiek zehaztasun handienaz erabili behar direnean eta, horien porrot larria ekidindo duen arreta arduratsuagoa eskatzen duen esanahi berezia hartzen dutenean. Estatu demokratiko baten egiazko zentzua behin-betiko urra dezakeen praktikak baztertzeko, horixe da, ahal den neurrian, azken helburua.

Historian zehar –eta gaur egun-, estatuaren ordenamendu juridikoan zein nazioarteko zuzenbide-esparruan egiazki eta behin eta berriz azaldu diren arriskuen jakitun, hiritarren gaineko botere-gehiegikeriaren alde egin dezaketenean egoerak, eta bereziki, tortura eta tratua anker eta iraingarriak, kostatuta ahala kostatuta, eragotzi behar direlako ideia finkatuz joan da.

Ibarretxe Lehendakariak, izendatzeko hitzaldian, behin eta berriz azpimarratzen du pertsona guzti-guztien eskubideekiko errespetua ezinbesteko konpromiso etiko bat dela, eta botere publiko guztien jarduteko jarraibide eta eduki izan behar duela. Jarduteko bide horrek, torturaren praktika nazkagarriaren aurrean, oihartzun handi eta biziagoa izan beharko du, tortura non gertatzen den, han. Izan ere, atzeman, atxilotu, giltzaperatu eta espetxeratutako pertsonak, krimenik deitoragarriak eta ankerrenak burutu badituzte ere, giza duintasunaren jabe dira eta horrela tratatu behar dira, gizarte-gatazka larrienak –delituak, hain zuzen- ebazteko eredu gisa, estatu demokratiko bati dagokiona mantendu nahi badugu.

Geure burua, giza eskubideak errespetatu eta modu zibilizatuan antolatzen diren gizartetzat hartu nahi badugu, ezin dugu ahaztu krimenen zilegizko erantzuna gehiegikeriaz ordeztzen denean, Askatasunen Estatuari dagokion ereduaren betetzen denentz ezartzen duen egiazko muga zeharkatzen ari garela. Horregatik, herri-aginteei dagokien giza duintasuna etengabe zaindu eta babestea, batez ere, espetxeratutako pertsonen aurka egin daitezkeen tortura-ekintza edo tratua aurrea hartzeko.

### Jarduteko printzipio politikoak.

- Tortura eta bestelako tratua krudel eta laidogarriak erabat debekatzeko ukazinezko konpromisoa berresten dugu.
- Zigortutako pertsonen eta euren familien giza eskubideak errespetatuko dituen espetxe-politika aldarrikatzen dugu.
- Egoera humanizatzeko ekimenak eta euskal presoak euren familia- eta gizarte-ingurunera hurreratzeko politika bideratzearen aldeko jarrera azaltzen dugu.

## 5. ardatzari buruzko ebaluazioa. Torturari aurre hartzea eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen giza eskubideak defendatzea.

Bakea eta Bizikidetzaren Ekartzeko Plana osatzen duten ardatz guztietatik, hauxe da zehatzena. Zortzi ekintza dira, eta oso helburu zehatzak dituzte, torturari aurre hartzen laguntzeko eta atxilo nahiz preso hartutako pertsonen giza eskubideak defendatzen laguntzeko. Kasu honetan ere, neurrietako batzuk euskal erakundeen erantzukizunpeko esparruetakoak dira, eta askoz zehatzago ebalua daitezke, baina beste batzuk ekimen politikoaren saillekoak dira.

Has gaitezen azken horietatik. Ebaluatzen ari garen garai honetan, Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuari askotan eskatu dio egin dezala euskal presoak beren gizarte-ingurutik eta etxe-koengandik hurbileneko espetxeetara ekartzeko plan bat. Besteak beste, horra hor, esate baterako, Eskubide Zibilak eta Politikoak Defendatzeko eta Sustatzeko Ekintza Plana, 2007ko ekainean aurkeztua. Bakea eta Elkarbizitza Ekartzeko Planean gai honi buruz jasota dauden 5 ekimenak plan horretan bertan ere ageri ziren, eta, gainera, 20 lege-aldaketa zehatz eskatzen zituen. Aldaketa-ekari horien artean, legea errespetatu beharra eta, beraz, presoek zigorra beren gizarte-ingurutik eta etxe-koengandik hurbileko espetxeetan betetzeko duten eskubidea benetan gauzatzeko bidea zabaldu beharra ere aipatzen zen.

Espainiako Gobernuak, ordea, eskari horri berriz ere ezezkua erantzun zion, nahiz eta euskal gizartearen gehiengoak aldekoa izan eta testuingurua ere oso lagungarria gertatu, tregua-garaia izanik. Momentu honetan, ETak atzera berriz indarkeriari ekin izan arren, Bakea eta Elkarbizitza Ekartzeko Plan honek orain ere uste du presoek giza eskubideak defendatu egin behar direla, gizarte- eta politika-testuinguruari begiratu gabe.

Oso-osorik euskal erakundeek martxan jarri beharreko ekimenak direla-eta, berriz, helburuetako bat, hain zuzen ere, "Espetxeratuta daudenak gizarteratzeko eta laguntza humanitario, sozial, sanitario eta juridikoa emateko laguntza-programak garatzea" zen, eta Planak bete du helburu hori. Programa horiek Estatuko Gobernuarekiko lankidetzahitzarmen baten inguruan zeuden egituraturik, baina Justizia Sailak hitzarmen hori inpugnatu egin du, estatuko erakundeek ez zutelako gaur egungo laguntza-sistema hobetzeko benetako interesik. Edonola ere, eta auzia konpondu bitartean, Eusko Jaurlaritzak gaur arteko zerbitzuak eskaintzen jarraitu du.

### Humanizatzeko Neurriak

Azken urte hauetan gobernuaren ekintzen artean bere bidea egin duten programetako beste bat, berriz, presoek senitartekoen egoera humanizatzeko neurriak bultzatzeko ahalegina izan da. Azken urte honetan, Familia Zuzendaritzak (Justizia Sailaren barruan dago zuzendaritza hori) 212.160 €-ko aurrekontu-atal bat gaur egungo sakabanaketa-politikaren ondorioak leuntzen saiatzeko erabili du, hau da, nahikoa diru-baliabiderik ez dutenei bisita-eskubidea ez galtzeko laguntzak emateko. Horrez gain, neurri horri hurrengo aurrekontu-ekitaldietan eustea aurreikusi da.

Agindutako beste gauzetako bat askatasunik gabe dauden pertsonen unibertsitateko ikasketak egiteko bidea erraztea zen, Euskal Herriko Unibertsitateak horretarako ezarritako jardute-protokoloa erabiliz, eta konpromiso hori ere bete da. Protokolo horretan daude eskainita Unibertsitateko sarrera-probetara heltzeko (25 urtetik gorakoentzako probetarako), espetxeetako ikasleen galderei erantzuteko, ikasmateriala bidaltzeko, azterketak egiteko eta emaitzak jakinarazteko informazio- eta kudeaketa-zerbitzuak. 2005-2006 ikasturtean 48 ikaslek egin zuten matrikula, eta 2006-2007 urtean 44 lagunek hartu zuten parte.

Torturari aurre hartzearekin zerikusia duten ekimenei dagokienez, Herrizaingo Sailak bere atxilotze-prozedurak ISO sistemaren kanpo-ebaluazioaren pean jarri ditu, eta giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek eskatzen dituzten hainbat neurri martxan jartzeko ardura hartu da (esate baterako, galdeketa-geletan kamerak jartzea).

Arlo honetako beste puntu bat, berebiziko garrantzia duena, tortura zertan den jakiteko txosten-eredu bat egiteko eta finkatzeko ekimena da. Giza Eskubideen Zuzendaritzak antolakunde independente bati eredu hori egiteko eskatu dio, eta 2008an eredu hori nazioarteko hainbat adituren eskuetan utziko dugu, baliozkoa ote den esan dezaten, eta, gero, benetako lehen informazio-tresna egiteko agindua emango dugu.

Eta, azkenik, Torturaren Aurkako Hitzarmenaren aplikazioari buruzko mintegi bat ere egiteke dugu. Legegintzaldiaren azkeneko bi urteetan izango da.

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkin gehigarriak eta aurrekontua
Atxilotutako Pertsonen Asistentzia Koordinatzeko Ertzaintzaren Protokoloak ezartzeko bidean aurrera egitea.	Gauzatze-bidean	Herrizaingo Sailak ISO sistemaren ebaluaziotatik pasarazi ditu bere atxilotze-prozedurak. Aurreikusita dago protokoloen egiazko aplikazioa kontrolatzeko formula txertatu ahal izango duen irizpen-sistema abian jartzea 2008. urtean.	Arartekoak, bestalde, txosten bat egin du berriki, eta bertan modu berezian jorratzen du gai hau. Horrez gain, legealdia amaitu aurretik abian jarri beharreko gomendio batzuk eman ditu.
Tratu txarrak edo tortura egon diren kasuetan, nazioarteko erakundeen esku hartzea bultzatu eta bideratzea.	Prestatze-lanetan	Giza Eskubideen Zuzendaritzak torturaren kontrako Hitzarmenaren aplikazioari buruzko lan-bilera egingo du, 2008. urtean, hainbat gizarte-erakunde eta aditurekin.	
Zaintza, prebentzio eta kontrolerako ekimenak garatzea, torturak eta tratu txarrak galarazteko.	Gauzatze-bidean	Giza Eskubideen Zuzendaritza lanean ari da Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin, torturaren egoerari buruzko irizpen-sistema bat abian jartzeko. Protokoloen kontrolaz gain, gai honen egiazko egoerari buruzko informazio-oinarri independentea eskaini ahal izango dio iritzi publikoari.	
Espainiako gobernuaren premiaztea, euskal presoak, beren gizarte eta familiarengandik gertu dauden kartzeletara ekartzeko Plana egin dezan.	Deialdia, egina	Gobernu-kontseiluak bi aldiz eskatu du formalki espetzeetako eskumenaren transferentzia.	
Espetxe-arloko legedia betetzea, premiaztea, atxilotuek zigorra beren gizarte eta familiarengandik hurbilen dagoen kartzelan betetzeko eskubidea egiazki betetzeari dagokionez.	Deialdia, egina	Eusko Jaurlaritzaren Kontseilu Politikoak eskari hori erantsi zuen, "Eskubide zibil eta politikoak defendatu eta bultzatzeko ekintza-plana"ren esparruan garatu beharreko ekimenen artean. Plana 2007ko uztailan aurkeztu zen.	

<p>Espetxeratuta daudenak gizarteratzeko eta laguntza humanitario, sozial, sanitario eta juridikoa emateko laguntza-programak garatzea.</p>	<p>Gauzatze-bidean</p>	<p>Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak urtero hainbat partida bideratzen ditu helburu horretara, Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren eta Gazteentzako Justiziako Zerbitzuaren mendeko programen barruan.</p>	<p>Aurrekontua: 707.054 €</p>
<p>Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legea garatzea, askatasunik gabe bizi diren pertsonen unibertsitate-ikasketak egiteko modua sustatzearen.</p>	<p>Gauzatze-bidean</p>	<p>Euskal Herriko Unibertsitateak programa hau dauka 2005etik: "presondegietan dauden pertsonen buruzko protokoloa". Protokolo horrek kudeaketa-zerbitzuak eskaintzen ditu Unibertsitaterako sarrera-probetarako (25 urtetik gorakoentzako probetarako), espetxeetako ikasleen galderei erantzuteko, ikasmateriala bidaltzeko, azterketak egiteko eta emaitzak jakinarazteko.</p>	
<p>Kartzelan dauden pertsonen senitartekoei zuzendutako humanizazio-neurriak bultzatzea.</p>	<p>Gauzatze-bidean</p>	<p>Justizia Sailari dagokion Familia Zuzendaritzak urtero partida bat bideratzen du helburu horretarako.</p>	<p>Aurrekontua: 212.160 €</p>

**6. ardatza.**

**Bakeari eta bizikidetzari  
begira heztea.**



## 6. ardatza. Bakeari eta bizikidetzari begira heztea.

Bakea lortzea ez da lan makala. Izan ere, gizateriak lagun izan du historia osoan zehar indarkeriaren kultura eta, egun ere bere horretan jarraitzen du, planeta osoko milioika gizakiren gaitz izanik. Bakearen bidea luzea eta latza izan arren, itzaropenaz blai datorkigu.

Bakea proposamen iraultzailea dela diote, eta ez soilik indarkeriarik egon behar duelako, egiazko Bake-egitura bat ere eskatzen duelako. Bakean bizitzea prozesu jarraikorra da, mugarik gabekoa, eguneroko ekintzekin, asmo oneko eguneroko ekintzekin uztartu behar dena. Pentsatu, sentitu eta jarduteko moduak errespetatzen dituzten ereduak sortzera zuzendutako ekintzak. Izateko eta mundua ulertu eta bizitzeko modu berri bat eraikitzea da, banakako pertsonen jardueratik at, eta talde-izana erabat bereganatuta.

Horrenbestez, herritarrak bakean eta balio demokratikoetan hezi nahi izanez gero, etengabeko politika egokia bideratu behar da, eta halaxe izan behar da, gainera, giza eskubideak komunitate bat antolatzerakoan zein garrantzizkoak diren jakinda, bakea iritsi nahi duten gizarte guztietan.

Herritarrak bakean eta balio demokratikoetan heztea ez da, beraz, beste politika bat, edo une jakin bateko politika bat, besterik gabe. Egoeraren arabera arrazoiengatik diseinatu, geureganatu eta gure artean indar bereziz zabaldu behar den politika bat da, euskal gizartearen baitan bake-prozesu hau atzeraezin bihurtzeko gehiengoaren irrika eta oinarritzko giza eskubideen urratzeek irekitako zauriak elkarrekin bizi baitira. Egun, oraindik eta tamalez, pairatzen dugun ondorena utzi diguten urratzeak, alegia.

Tresna egoki eta errespetagarria da, beraz, gurea bezalako gizarte heldu eta nagusi batentzat bakearen eta balio demokratikoen hezkuntza, irmo eusten baitio, egiazko euskal gizarte libre eta zintzoa, bakean biziko dena, osasuntsu eta indartsu eraikitzeko ezinbestekoa den gutxieneko humus etiko eta sozialari uzteko asmoari.

Ezer baino lehen, giza eskubideekiko kontzientzia eta, horiek urratzearen aurkakotasun zorrotzenaren beharra finkatu eta sustraitzea sustatuko duen prebentziozko politika positiboa izan behar du bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza. Biolentziak gatazkak ebazteko duen zilegitasuna errotik kentzeko bidea, poliki-poliki, bizikidetzeta-sistema baketsu eta demokratiko batez ordezkatzeko.

Bake eta balio demokratikoen kultura bat zabaltzeak, egiazko gizarte-aldaketa ekarri behar digu eta "utopia historiaren eragiletzat hartzeko" beharraz blaituko gaitu.

### Jarduteko printzipio politikoak.

- Begirunea, tolerantzia, elkarriketa, elkartasuna eta justizia bezalako balioetan oinarritutako bizikidetzeta taxutzeko, bakeari begira heztearen aldeko apustua berresten dugu.
- Jakin badakigu, bakean bizitzea ez dela, besterik gabe, gatazkarik gabe bizitzea; gatazkei aurre egitea da, betiere, inolako indarkeriarik erabili gabe eta, elkarriketa eta ulermena bake-tresnatzat erabilia.
- Gure gizartean autokritikaren espiritua, barkamena eskatzeko apaltasuna eta barkatzeko prestutasuna sorrarazteko konpromisoa hartzen dugu, adiskidetzeko bideak izan daitezen.

## 6. ardatzari buruzko ebaluazioa. Bakeari eta bizikidetzari begira heztea.

Bakeari eta bizikidetzari begirako hezkuntza sustatzera zuzendutako jarduera-ardatza “ibili beharreko bide” moduan pentsatua zegoen. Baina, hezkuntza-munduaren eskariak eta arlo horretan lan egiten duten gizarte-eragileen ekarpenak direla eta, egia bihurtu da hasiera-hasieratik. Izatez, ardatz horren betetze-maila Bake eta Bizikidetz Planeko beste ardatz batzuen bano handiagoa da.

### Bakean Hezteko Euskal Plana

Arlo horretan aurreikusitako jarduerak 15 ziren, eta haietariko askok handinahiko helburu hau aldarrikatzen zuten: gure ingurunerako Giza Eskubideetarako eta Bakerako Hezkuntzaren arloan laneko egitura bat sortzea. Jarduerarik aipagarriena “Bakean eta Giza Eskubideetan Oinarritutako Hezkuntzari buruzko 2008-2011 Euskal Plana” prestatzea izan da; plan hori gizarteari oro har eta -hezkuntza-munduari bereziki- zuzentzen zaio, balio demokratikoen eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza lortzeko. Plan horren eginkizuna gai horri koherentzia eta egonkortasun instituzionala ematea zen, eta, logikoaenez, ardatzean banakaturiko neurri gehienak hartzen zituen eraginpean.

Eremu horretan egindako lanen aurretik, dena dela, sail arteko batzorde bat sortu zen, eta lanean ari da 2006ko azarotik. Plana, azkenik, Eusko Legebiltzarreko Biktimen Ponentzian aurkeztu zen, 2007ko ekainean. Azaroan, prozesua ixten duen zirriborroa aurkeztu zen. Legebiltzarreko taldeen, gizarte-erakundeen, nazioarteko erakundeen (Giza Eskubideen NBERen goi-komisarioaren Bulegoa, UNESCO eta Europako Kontseilua) eta gainerako hezkuntza-eragileen artean egindako ekarpenak bildu eta laburbiltzen ditu zirriborro horrek. Ekarpenera ia urtebete iraun duen eztabaida publikoko eta kontrasteko aldi baten ondoren egin dira. Konprometituriko 65 milioi euroko aurrekontuak eta bultzatuko diren ia 90 ekintza eta programek argi eta garbi erakusten dute egitasmoaren tamaina. Plana 2.007. urteko azken Gobernu Batzordean onartu zen.

Ardatzean banakaturiko hainbat eta hainbat ekimen Plana abian jartzeko prestakuntza-ekintzak dira, gizarte-partaidetzari irekitako lan-ereduari jarraiki. Lan-eredu hori udalera bideratuta dago, erakundeen arteko eta gizarte-arloko gai horri buruzko koordinazioa gauzatzeko erreferentzia-unitate gisa, eta maila guztietako egitura egonkorak biltzen ditu, baita politikari buruzko diagnostikoaren eta ebaluazioaren kultura ere.

Horregatik, ardatz horretan bildutako ekimenen artean, honako hau egin da: jardunbide egokien mapak landu eta, are gehiago, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzak gure komunitatean duen egoerari buruzko diagnostiko osoa. Diagnostikoa amaituta eta argitaratzeko prest dago jadanik. Izan ere, ezin da plangintza seriorik egin hasierako potentzialari eta egoerari buruzko datu empiriko guztiak jakin gabe. Era berean, udal-arloko proiektu pilotuak garatu dira —1. ardatzean aurreratu dugunez—, tokiko arloko hezkuntzako esku-hartzearen aurrerabide-ibilbideak detektatzearren.

Ardatz honetan jasotzen den beste helburu estrategikoetako bat jardunbide egokien mapa prestatzea eta bakerako hezkuntzaren arloko egitasmo pilotuak abian jartzea izan dira. Helburu horrekin, Giza Eskubideen Zuzendaritzak ikastetxeen eta familien arteko lankidetzaren sustatzeko esperientzia batzuk koordinatzen ditu, tolerantziarako hezkuntzako programak garatzeko eta aplikatzeko. Haien artean, aipagarria da, duen izaera berritzaileagatik eta emaitza bikainengatik, Bilboko Abusu auzoan garatzen ari dena.

Plan horri lotuta, baina Bake eta Bizikidetz Planaren barruan ekimen bereziaren maila duela, 2007ko martxoan bakearen eta balio demokratikoen arloko hezkuntzan lan egiten duten elkarleen foroa sortu zen. Gaur egun, 30 erakunde bano gehiagok parte hartzen dute, eta euren zuzendaritza-batzordea eta artekaritza-organismoak ere aukeratu dituzte. Giza Eskubideen Zuzendaritzak erakunde berri horri laguntzen dio, foroaren lanak errazten dituen idazkaritza teknikoaren lanak diruz lagunduz.

Hezkuntza Sailak funtsezko papera jokatu du Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren bidez, eremu horretako lanei eskoletatik laguntzeko orduan. 2007. urtean Hezkuntza-berrikuntzarako 2007-2010 programa, lehen "Lehentasunezko ekintza-ildoak: eskola inklusiborantz" deitzen zitzaiona zehazten du. Orain, berriz, ildo hori "Bizikidetzak, bakea eta giza eskubideak" izeneko programan gauzatzen da. Programa horrek ekimen ugari biltzen du; besteak beste, honako hauek aipa daitezke: "Urteko Bizikidetzak Plana gauzatzeko Gida" eta "Ikastetxeko Bizikidetzak Behatokia" sortzea. Sail horrek, era berean, zeharkako beste hezkuntza-ekintza berri batzuk ditu ikasketak programetan, bakeari, giza eskubideei eta demokraziari buruzkoak, hain zuzen ere. "Herritartasunerako hezkuntza" ikasgai berria da, eta pilotutza-aldian dagoen horri lotutako unitate didaktikoa: "bakea eraikitzen duen gizartea".

Ekimen estrategiko horien osagarri moduan, Jaurlaritzako lau zuzendaritza nagusik –bai eta beste zenbait gizarte-erakundek ere– abian jarri dituzte planaren atal honetan aurreikusita zeuden egitasmo aipagarri batzuk. Gizarte Gaietarako Sailak zein Justizia Sailak lankidetzak-hitzarmena izenpetu dute Betizu haurrentzako telebista-programarekin; Gazteria Zuzendaritza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, berriz, elkarlanean ari dira Gazteriaren Kontseiluarekin, "Euskadi gertuago" programaren bidez, eta Lehendakariak bat egin du Hezkuntza Sailak eta Justizia Sailak Baketik Fundazioari eman dioten laguntzarekin, adiskidetzak-prozesuak sustatzeko baldintza egokiak sorrarazten dituzten gizarte-sareen garapena errazteko. Immigrazio Zuzendaritzak, bestalde, hainbat egitasmo ditu abian helburu honekin: etorkinekiko bizikidetzaren alde eta horiek gizartera eta kulturara molda daitezen jardutea, betiere, euren nortasuna errespetatuz. Planaren ardatz honetan, izan ere, horrela zegoen jasota.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, Eudelekin eta hainbat gizarte-erakunderekin batera, "Konpondu, herritarrek bakea eraikitzen parte hartzeko ekimena" abian jarri du. Ekimen horretara, 104 euskal udalerrri eta bertako eta kanpoko beste hainbat gizarte-sare bildu dira. Irailaren hasierarako 50 foro baino gehiago burututa zeuden gure herriaren barnean eta handik kanpo, eta, bide horri jarraituz, Bake eta Bizikidetzak Plana biltzen dituen aurrez aurreko bilerak eta nazioarteko esperientzien trukeak egitea lortu da.

Egiaz abian jarritako ekimenen bolumena hasierako aurreikuspenetan bildutakoa baino askoz ere handiagoa izan da, batez ere Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzari buruzko 2008-2011 Plana deitutakoak jardueradentsitate handia eragin duelako (eta legealdia amaitu arte gero eta jarduera handiagoa eragingo du).

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Bakean hezteko Euskal Plana egitea, orokorrean, gizarteari eta bereziki, hezkuntza-esparruari zuzendurik, balio demokratikoetan eta Bake-kulturan oinarritutako hezkuntza lortze aldera.	Prestatua eta behin-betiko onartzeke (aurreikuspenen arabera, 2007ko abenduan onartuko da)	Prestakuntzako, abian jartzeko eta partaidetzak jarraituko prozesu baten ondoren, Plan hau Eusko Legebiltzarreko Biktimen Ponentzian aurkeztu zen, joan den ekainean. Geroago, beste zirriborro bat aurkeztu zen, ia behin betikotzat har daitekeena, 2007ko azaroan. Plana 2.007. urteko azken Gobernu Batzordean onartu zen..	Aurrekontua: 6,5 milioi euro. (Aurrekontu honek jarduerak-ardatzean sartutako ekimen guztiak hartzen ditu).
akean eta balio demokratikoetan funtsatutako hezkuntzaren inguruko sailen arteko Batzordea sortzea.	Eratua eta garatzen	Batzorde hori 2006ko azaroan sortu zen, Giza Eskubideetako eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Plana bultzatzeko. Orain arte, aldizka bildu da, eta honako kide hauek ditu: Giza Eskubideen Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Lehendakariak, Immigrazio Zuzendaritza eta Gazteria Zuzendaritza.	

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntzaren alde diharduten elkarten Topagunea sortzea.	Eratua eta garatzen	Foro hori 2007ko martxoan eratu zen. Gaur egun, 30 erakundek baino gehiagok parte hartzen dute, eta euren zuzendaritza-batzordea eta artekaritza-organoak ere aukeratu dituzte.	
Elkarten Foroaren lanak errazteko idazkaritza teknikoak sortzea.	Eratua eta lanean	Giza Eskubideen Zuzendaritzak arlo honetako agentzia espezializatu bat kontratatu du, sortu diren beharrazanei erantzuteko.	
“Eskola Inklusiborantz, elkarbizitzarako eta Bakerako hezkuntza” izeneko lehentasunezko Jarduera Lerroa garatu eta azpimarratuko duen Hezkuntza Berriztatze Programaren 2007-2010 onartzea.	Onartua eta inplementatze-aldian	Ekimen hau Hezkuntza Sailak abian jarritako “Bizikidetzak, Bakea eta Giza Eskubideak” izeneko programan gauzatu da. Programa horrek ekimen ugari biltzen ditu; besteak beste, honako hauek aipa daitezke: “Urteko Bizikidetzak-Plana gauzatzeko Gida” eta “Ikastetxeko Bizikidetzak Behatokia” sortzea.	
Ikaskuntza-maila guztietako (formala eta ez-formala) ikasketak programetan, bakearen, giza eskubideen eta demokraziaren inguruko zeharkako hezkuntza-jarduerak txertatzea.	Gauzatzeko bidean	Helburu horiei zuzenean erantzuten dieten bi hezkuntza-ekintza daude: “Herritarasunerako hezkuntza” ikasgai berrirako prestatze-lanak burutu dira, eta pilotutza-aldian dago Hezkuntza Berriztatze Programaren Zuzendaritzak Giza Eskubideen Zuzendaritzaren lankidatzaz prestatu duen unitate didaktikoa.	
Ikastetxeen eta familien arteko lankidetzak sustatzea, tolerantziaren aldeko hezkuntza-programak garatu eta ezarri ahal izateko.	Prestatze-lanetan	Ekimen hau Hezkuntza Sailak bultzatutako bi planen bidez garatzen ari diren esperientzia pilotuei lotuta dago: “Abusu, auzo hezitzailea” Zamaola Plan Orokorra eta Bizikidetzak Plana.	
Beste Autonomia Erkidegoetako edo herrialdeetako ikasle eta irakasleekin aldizkako truke-aldiak antolatzea.	Gauzatzeko bidean	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera, truke-programa bat garatzen ari da euskal gazteen eta Espainiako Estatuko beste autonomia-erkidegoetakoekin artean, “Euskadi gertuago” izenekoa.	Aurrekontua: 13.000 €
Ikastetxe, udaletxe eta astialdiko taldeen inguruan, bakean hezteko jardunbide egokien mapak lantzea.	Amaitua	Giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzari buruzko udalaren, eskolaren eta komunitate osoaren arloko diagnostiko osoa egitea.	Aurrekontua: 90.000 €

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Bakean hezteko ereduak proiektu pilotu integralak sustatzea.		Ekimen hau honako udalerritan garatzen ari diren esperientzia pilotuei lotuta dago: Agurain, Amurrio, Durango, Erandio, Etxebarri eta Urtuella.	Aurrekontua: 90.000 €
Etorkinekiko bizikidetzaren alde eta horiek gizartera eta kultura molda daitezela jardutea, betiere, euren nortasuna errespetatuz.	Gauzatze-bidean	Inmigrazio Zuzendaritza gaur egun helburu horri erantzuteko hainbat programa garatzen ari da.	
Bake-kultura eta balio demokratikoak hedatzeko, herri-komunikabideetan dibulgazio-programak babestea.	Gauzatze-bidean	Gizarte Gaietarako Zuzendaritzak lankidetzak hitzarmen bat izenpetu du Betizu programarekin arlo honetan.	Eusko Jaurlaritzak eta EITBk giza eskubideen arloan izenpetua duten lankidetzak hitzarmenak ere helburu horiek berak ditu. Dagoeneko onartu da 2008. urterako plangintza, giza eskubideak eta bakea komunikabideetan sustatzeko hogeita hamar ekimen baino gehiago bilduta.
Bake-kulturan eta adiskidetzan oinarritutako diren haur eta gazteei zuzendutako sentikortze-kanpainak bultzatzea.	Gauzatze-bidean	Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak gazteei bideratutako hainbat proiektu bultzatu du, eremu horretan diharduten gazte-erakundeei diru-laguntzak emateko urteko egiten duen deialdiaren bitartez.  Gizarte Gaietarako Zuzendaritzak eta Gizarte Ongizate Zuzendaritzak lankidetzak hitzarmen bana sinatu dute TBko Betizu haur-programarekin programarekin arlo honetan.	Aurrekontua: 30.000 €

Ekimena	Egoera	Balioespena	Iruzkina gehigarriak eta aurrekontua
Adiskidetzeko Topaguneak bideratzea, horietan pertsonak elkar daitezten eta, elkarri, nazioarteko esperientzien berri eman diezaioten.	Gauzatze-bidean	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak, Baketik erakundearekin batera, "Youth policies in Contested spaces" Nazioarteko Mintegia egin du 2007ko urrian. Foro horrek gatazkan dagoen hainbat gizartetako gazteak biltzen ditu, adiskidetze-prozesuei buruzko esperientziak trukatzearren.</li> <li>- Lehendakariak "Konpondu, herritarrek bakea eraikitzen parte hartzeko ekimena" abian jarri du. Ekimen horretara, 77 euskal udalerrri eta bertako eta kanpoko beste hainbat gizarte-sare bildu dira. Irailerako, 50 foro presentzial baino gehiago eginak ziren gure herriaren barnean eta handik kanpo. Foro horietako aktak eta partaideen balioespenak webgune honetan irakur daitezke: <a href="http://www.konpondu.net">www.konpondu.net</a>.</li> </ul>	<p>Aurrekontua, Gazteria: 55.000 €</p> <p>Aurrekontua, Lehendakariak: 200.000 €</p>
Adiskidetze-prozesua suspertzeko baldintza egokiak sortuko dituzten gizarte-sareen garapena bultzatzea.	Gauzatze-bidean	Eusko Jaurlaritzak lankidetzak-hitzarmen bat izenpetu du Arantzazu-Baketik Fundazioarekin, ezaugarri horiek dituen sare bat sortzeko.	Aurrekontua: 60.000 €